


BURUJABETZA

P L U R A L E A N



IDEIAK
ZABALDUZ
S A I L L A

Burujabetza pluralean



IDEIAK
ZA BALDUZ
S A I L A



LEHENGO EDIZIOA

Donostia, 2018ko martxoa

Iratzar Fundazioa

Zuatzu Enpresa parkea
Zuhatsu kalea, Easo Eraikina, 4 behea.
20018 Donostia (Euskal Herria)
fundazioa@iratzar.net
www.iratzar.eus

Edizio honen testuak: Jule Goikoetxea, Andoni Olariaga,
Marina Sagastizabal, Arantza Santesteban, Igor Ortega,
Amaia Oleaga eta Uzuri Aboitiz

Itzulpenak: José Morales

Diseinua: Unai Bergara Monasterio

Maketazioa: Aitziber Ruiz Alvarez

Inprimaketa: Gertu Inprimategia (Oñati)

Lege Gordailua: SS- 313-2018



Aurkibidea

BI HITZ 15

Burujabetza: gure burua eta bizitzaren jabe

Iratzar

DEMOKRAZIAREN PRIBATIZAZIOA:

Kapitalismoa eta burujabetza 19

Jule GOIKOETXEA MENTXAKA

- Sarrera
- Kapitalismo globala eta bere demokrazia pribatua
- Nazioanismoa eta estatu subirautza: demokraziaren oztopo?
- Mundu kosmopolitaren post-subiranoa

BURUJABETZA ETA ERABAKITZE ESKUBIDEA 35

Andoni OLARIAGA AZKARATE

- Demokraziaren pribatizazioa eta burujabetzaren galera
- Euskal Herriko zikloaren hipotesi estrategikoa eta metaforak
- Hipotesi estrategikoaren gaurkotzea
- Paradigma berrirako metafora berriak

GORPUZTU BURUJABETZA FEMINISTA 49

Marina SAGASTIZABAL

- Abiapuntua
- Zauri eta orbainez beteriko bidea
- Burujabetza feminista ezaugarrituz
- Burujabetzaren bidea
- Osatze feminista sustatuz

BURUJABETZA, GORPUTZA ETA KULTURA 6I

Arantza SANTESTEBAN PEREZ

- Burujabetza eta gorputza
- Kultura: ondarea eta sorkuntza
- Burujabetza, gorputza eta kultura

EKONOMIA HERRIGILEA:

Herrigintza ikuspegietatik ekonomia artikulatzeko esperientziak 7I

Igor ORTEGA

- Paradoxa bat abiapuntua
- Galdera berriak inertzia zaharrak
- Aldagai berriak emantzipazioaren ekuazioan
- Paradoxari irtenbideak bilatzen

BURUJABETZA ERAIKITZEN:

Publikoa, komuna, komunitarioa, kooperatiboa 8I

Amaia OLEAGA

- Komun historikoak
- Komun berriak
- Euskal Herria komunean
- Aurrerabideak

BURUJABETZA FEMINISTA:

Burujabetza eguneroko bizitzatik pentsatzeko saiakera bat 9I

Uzuri ABOTIZ HIDALGO

- Zer egin behar diogu aurre?
- Zer dago jokoan?
- Burujabetza feministaren apustua
- Trantsizio feminista
- Ondorio gisa

Burujabetza: Gure bizitza eta buruaren jabe

Gure bizitzaren gaineko kontrola historiaren funtsezko ezaugarria da Chomskyren ustetan. Hori da, hain zuzen, kaier honetan gure garaietako baldintzak aintzat hartuz egin nahi dugun gogoetaren funtsa. Izan ere, garai neoliberal hauetan, “herri burujabetza, herritik, herritarrekin eta herriarentzat” eginbide demokratikoa bazterturik, elite finantzario eta politikoek interes pribatuen defentsarako tresna bilakatu dute bizitzarako nuklearra den burujabetza.

Zer da, ordea, gaur egun burujabetza? Horixe da argitzen saiatuko garena. Bizitzaren jabekuntzaz arituko gara, botereaz, hizki larriz idatzita. Erabakitzeke ahalmenaz, askatasunaz, baldintza materialetaz... Finean, hauxe baita burujabetzaren oinarrizko esanahia.

Burujabetza gorpuzteko, hau da, komunitate batek, hartzen dituen erabaki politikoaren arabera bere burua gobernatzeko, zer behar du? Batetik, gaitasun politikoa, hau da, burujabetza materiala; bestetik, erabakimen gune bat eta bere eskumen zalantzaezinak, burujabetza formala. Euskal Herriko demosak, ongi izate sozial eta politikoa lortzeko, aipaturiko bi burujabetza formak behar ditu.

Jabekuntza prozesu honek dakarren konplexutasunaz jakitun, sakondu beharko dugu ahalduntze indibidual eta kolektiboan, interseksionalitatea eta transbertsalitatea gure begiradan txertatuz, feminismoen teoriak eskaini dizkigun hainbat kontzeptu eta lanabesak erabiliz.

Horregatik, Euskal Herrian abian jarri nahi dugun eraldaketa sozialerako prozesuek, burujabetza izango dute oinarri eta artikulaziorako gune: demosak beren buruari dagozkien afera guztiak (gorputza, familiak, energia, hezkuntza, ekonomia, kultura, ikerkuntza, administrazioa....) gobernatzeko gaitasuna izango duen prozesu dinamiko, bizia eta sakona. Ez da, beraz, monolitikoa, poliedrikoa baizik, hortik aurkezpen honen lerrobua.

Eskuan daukazun kaierrak beraz, bi parte nagusi ditu. Lehen partean, Jule Goikoetxeak eta Andoni Olariagak marraztu duten marko teoriko baterako

zertzeladak irakurri ahal izango dituzu. Eta bigarren partean, eraldaketarako ideia xede, ahalduntze pertsonal/kolektiboaren eta sozio-ekonomikoaren aldeko gogoetak eta urratsak aztertze aukera izango duzu.

Parte honetan, Marina Sagastizabal eta Arantxa Santestebanek gure gorpuzaren erabakitzeko ahalmena eta ongizateaz hausnartzeko bidea proposatzen digute. Eta Igor Ortega, Amaia Oleaga eta Uzuri Abotizen gogoetek, eraldaketarako jarduera eta ideia berriez, edota herrigintza gauzatzeko bideez hausnartzeko aukera emango digute.

Irakurketa eta batik bat eztabaida on!!!

Donostian 2018ko martxoan

Demokraziaren pribatizazioa, kapitalismoa eta burujabetza¹

Jule GOIKOETXEA MENTXAKA

Feminista, EHuko irakaslea, *Oxford International Gender Studies Center*-ko kidea

SARRERA

Mundua eta Europa demokratizatzeko proposatu diren bide ezagunen oinarrian badago premisa bat, hau da, demokrazia posible dela soberaniarik gabe ere; hain zuzen, pentsalari publikatuenek bazter utzi dituzte nazio, estatu eta herri burujabetza, ez baitute uste gaur egungo mundua demokratizatzeko mekanismo eraginkorrak direnik. Kontrakoa argudiatuko dut hemen, demokratizazioa mamitzeko funtsezkoak direla, besteak beste, estatu esaten diogun egitura publikoen multzoa eta, beraz, herri eta estatu burujabetzaren teoria eta praktikak: komunitate politiko batek zenbat eta botere/gaitasun instituzional eta konstituzional gutxiago izan, bada, orduan eta erreprodukzio-botere gutxiago izango du bere burua komunitate autogobernatu gisa (demokrazia gisa) iraunarazteko.

Soberania, akaso, banatu egin daiteke, baina ezin da desagertu, izan ere, komunitate batek ez badauka gaitasun politikorik (burujabetza edo soberania materialik), ez eta erabakimen gune bat, eskumen zalantzaezinekin (soberania formala), bada, komunitate horrek ezin du bere burua gobernatu bere erabaki politiko propioen arabera.

Subiranotasun popularra honela birpentsatu behar da: komunitate politiko batek daukan gaitasun politikoa eta boterea (baliabideak, ahalmena, abilitadea) bere erabaki politikoak errealitate bilakatzeko. Ezin da demokratizaziorik egon, enpoderamendu publiko kolektiboaren zentzuan, botere politikoa lurraldetu eta instituzionalizatu gabe. Lurraldea demokratizaziorako elementu basikoa da, ongizatea ez baita soilik kolektiboa, territoriala ere

¹ Egile beraren *Demokraziaren pribatizazioa. Kapitalismo Globala, Europa eta Euskal lurraldeak*. Elkar. Donostia. 2017 liburutik moldatua.

badelako. Beraz, demokratiazioa egoteko, autogobernurako ahalduntze kolektiboa, alegia, boterea territorializatu eta instituzionalizatu behar da.

Zer behar du komunitate politiko edo herri batek, kapitalismo globalaren garai hauetan, demokrazia gisa bizirauteko? Galdera honi erantzuteko, demokraziaren dimentsio dinamikoan zentratuko gara, demokratizazioan. Demokratizazioak esfera publikoa pribatizazioaren kontra anplifikatzea du helburu, desberdintasun desberdinak politizatzen baititu. Gobernantza demokratikoaren eta subiranotasun popularraren helburu eta ideia, komunitate politikoek haiek nahi duten eran erreproduzitu daitezela da. Hemen azalduko dugu globalizazioak eta kapitalismo globalak ahalduntze kolektiboari eta herrien eta Europako komunitateen autogobernu politikoari zergatik suposatzen dioten desafioa.

Gobernu demokratikoaren eta herri burujabetzaren helburua beti izan da herriak bere burua egoki iritzi moduan erreproduzitu ahal izatea. Herri horri nazio, demos, gizarte, komuna edo komunitate deituta ere, hori ez da aldatuko. Testu honetan azalduko dut zergatik den globalizazioa edo kapitalismo globala halako erronka handia demokraziaren ikuspegitik, hau da, autogobernuaren bidez lortzen den eta autogobernua xedetzat duen boteretze kolektiboarentzat. Mundua demokratizatzeko, herria boteretu behar da autogobernatzeko teknika, estrategia eta egituren bidez, eta horiek lortzeko esparru publikoa zabaldu behar da. Kapitalismo globalak murriztu egiten du esparru publikoa, eta herriaren autoritate publikoa, eskubideak eta gaitasun politikoa pribatizatzen.

Europar Batasuna bera da pribatizazio tokiko eta global hau mamitzeko dispositiboa. Europar Batasuna ez da gai izan herriak, nazioak edo eskualdeak boteretzeko; izan ere, mugaz gaindiko eta maila-anitzeko lankidetzeta sustatu dira neurri instituzionalizatuen bidez (adibidez, Arku Atlantikoko eta Europar gaindiko sareak), aliantza horizontalak eta Eskualdeen Batzordea sortu dira, baina horiek guztiak ez dira autoritatiboak eta oro-hartzaileak; ez dute botere legal konstituzionalik, botere mota hori izanik komunitate osoari eragiten diona eta, beste botere batzuen aldean, botere horrek izanik ondorio sozial, politiko eta ekonomiko handienak. Komunitate politiko batek zenbat eta botere instituzional, lurraldetu eta legal-konstituzional gutxiago izan, orduan eta soberania edo burujabetza gutxiago lortuko du.

Globalizazioak edo kapitalismo globalak sortzen dituen arazoak konpontzeko aurkeztu diren proposamen nagusiak modu kritikoan deskribatu, eta, ondoren, horien inguruko kritika teoriko bat jorratuko ditut. Jakin badakigunez, hainbat irakurleri ez zaio egokia irudituko globalizazioari “kapitalismo

global” deitze hori, baina horrek argi erakusten du konfrontazio politikoa ez dela soilik praktika, politika eta egitura jakin batzuen inguruan; ez, esanahiaren eta zentzuaren eremuan ere borrokatzen da politika.

Kapitalismoak, akaso, demokratizatzeko erabil daitezkeen egiturak eta praktikak ezarri izan ditu, baina kapitalismoak egia ekonomiko batean sinesten du (merkatu/lehia askea), eta sinesten du egia horren arabera gobernatu behar dugula geure burua. Beraz, kapitalismoaren asmoa, egia horri segi, kapitala pilatzea eta areagotzea da, esplotazioaren bitartez; demokraziak, ordea, norbanakoak eta kolektiboak boteretu nahi ditu, hartara, beren burua gobernatzeko gai izan daitezen, eta aurre egin diezaioten esplotazioari eta inposatu nahi zaien edonolako egia unibertsalik.

KAPITALISMO GLOBALA ETA BERE DEMOKRAZIA PRIBATUA

Sassenek erakutsi digunez (2008), estatuek eurek bideratu dituzte globalizazioaren dinamikak; izan ere, haiek eraman dituzte arlo pribatura nazio-estatuari zegozkien zenbait funtsezko elementu. Besteak beste, prozesu mota horrek dakar demokraziaren pribatizazioa deitzen dugun hori. Demokraziaren pribatizazioaren ezaugarri da estatuari zegozkion ahalmenak eta gaitasun publiko-politikoak (hala nola erabakiak hartzea, legeak egitea eta ezartzea, horiek ebaluatzea, berriro egokitzea, ondasunak ekoiztea eta banatzea) esku pribatuetara igarotzea (enpresak, adituak, lobbia, interes-taldeak, eragile exekutiboak).

Hainbat nazio-estatuak estatuaren gaitasun politikoak hustu dituzte, ez merkatuaren premia objektiboengatik, ez eta egia ekonomiko unibertsalengatik, baizik eta botere-harreman, barne-egitura eta beren klase sozio-ekonomikoen interesak direla eta. Zentzu horretan, globalizazioak ez die berdin eragiten nazio-estatu guztiei; izan ere, nazio-estatuari gehiago edo gutxiago eragingo die, estatu bakoitzaren konfigurazioaren eta botere ekonomikoaren arabera. Sassenen iritziz, globalizazioak nazio-estatuaren antolamendu-logikak eta autoritate-ahalmenak desmuntatzen (disassemblage) ditu, eta, ondoren, berriro muntatzen (reassemblage) ditu, maila globaleko logika ekonomiko, judizial eta autoritatibo baten arabera. Ahalmen eta logika horien ondorioz, lurraldea desnazionalizatzen ari da, pribatizatzen, alegia. Are gehiago, egitura publiko eta politiko globalak ez baditu herriak hautatzen, orduan, “desnazionalizazio” hitza eufemismo bat da. Egitura global publiko

horiek ez baditu herriak aukeratzen, eta egitura horiek ez badira erantzule herriaren aurrean, bada, orduan, demokraziaren pribatizazioa edo des-demokratizazioa adierazten duen beste kontzeptu bat da desnazionalizazioa, eta ez besterik.

Lurraldea, nazioa eta instituzio publikoak pribatizatzeko beste modu bat zor pribatua, gehienbat bankuen zorra, zor publiko bilakatzea da. Aberastan publikoa, herritarrek sortzen dutena, pribatizatu eta galera pribatuak publiko eta herriarenak bilakatu. Hortaz, zer da estatu exekutiboak gaur egun aurrera eramaten ari diren kapitalismo global hori? Bada, herria lapurtzeko eta ondasunez desjabetzeko modu legalizatu bat. Pribatizazioa aipatzen dugunean ez dugu soilik esan nahi zerbait indibidual bilakatzen denik, ez, esan nahi dugu modu kolektiboan sortu eta ekoitzi den zerbait esku pribatuetara joaten dela, inork hautatu ez dituen eta inoren aurrean erantzuten ez duten esku pribatuetara, eta hori gertatzen dela merkantilizazio eta finantzializazio prozesuen bitartez. Esku publikoetatik, eta, beraz, estatutik esku pribatuetara joaten da dirua, industria, gorputzak, lurra, jakintza, osasungintza, zuzenbidea, teknologia, zaintza eta hezkuntza.

Bretton Woodseko akordioaz geroztik (1944-1973), eragiketa komertzial eta finantzarioak egiteko nazioz gaindiko arau pribatuei jarraitzen dien gobernantza-sistema bat ezarri zen, ongizate estatua deuseztatzeko asmoz, eta horretarako muturreko merkantilizazio-prozesu bat ezarri zen, botere eta ahalmen politikoa botere legegileari kenduz eta botere exekutibo eta judizialari emanez. Adar legegileari boterea kendu zaionez, herritarrek eragin txikiagoa daukate erabakietan, politiketan eta legetan, eta, hala, desdemokratizazio-prozesu bat abiatzen da. Ondorioz, nazio-estatua ez da desagertu, horren zenbait dimentsio berrindartu dira, eta, era berean, herritarren parte-hartzea eta autogobernua ahuldu da. Teoriko liberalentzat, estatua desagertu omen da, baina ez dago desagertze horren frogarik; aitzitik, eskura dauzkagun frogek erakusten dute estatuaren adar exekutibo eta judizialak tinkotu egin direla, herritarren ordezkarien kalterako (adar legegilea).

Mugaz gaindiko finantza-fluxuak aspalditik ezagutzen ditugu, baina lehen behintzat ez zuten adierazten finantza-merkatu global bat zegoenik, ez eta merkataritza-sistema global bat zegoenik ere. Hemeretzigarren mendeko multinazionalak nazioarteko merkataritza aldatu zuten hogeigarren mendean, eta halaxe eraldatu zituzten ordura arte erakunde publikoen eta pribatuen artean nagusi ziren harremanak. Berdina egin(go) dute hogeigarren mendeko multinazionalak XXI. mendean. Hala ugaritzearen ondorioz, bankuen eta finantzaren sektorea eraldatu egin da, eta halako harreman

bat ezarri da entitate pribatuen, enpresen eta eragile exekutiboen artean. Horiek denek ez daukate inongo erantzuletasunik esparru publikoaren edo herritarren aurrean.

Eragile indibidualek eta enpresek erabakitzen dute nola gobernatu beren negozioak eta nola gobernatu herrialde eta herritar-multzoak osorik, haien iritzirik aintzat hartu gabe. Argi dago ez direla gauza bera Nazio Batuen Era-kundeak (NBE) hartu duen erabaki bat eta burtsa globalak hartu duen erabaki bat, zeinak enpresa japoniar bat, estatu afrikar bateko ministerioa eta AEBetako exekutiboko kide bat biltzen baititu; hala ere, aldi berean, ez dira gauza bera NBEk hartu duen erabaki bat eta parlamentu nazional batek edo herritarren ordezkari zuzenek hartu duten erabaki bat.

Maila-anitzeko gobernantza-sistema esaten zaion horrek (Hooghe and Mark, 2001), zeinaren arabera adar exekutiboak eta enpresa batek ontzen baitituzte legeak (eta ez, aldiz, nazio-estatuaren ordezkariak edo herritarrek osatutako legebiltzar batek), ez du inongo zerikusirik demokraziarekin; aitzitik, demokrazia pribatizatzeko bide bat da. Nazioarteko komunitatearen eta Europar Batasunaren maila-anitzeko gobernantza-sistema neoliberealean ez da estatua ahultzen, estatuaren demokratikotasuna ahultzen da. Horregatik, gobernantza globalak ez du estatua deuseztatuko; aitzitik, pribatu eta neokapitalista bihurtuko du.

Erregulazio nazional eta nazioartekoak aldatu egin dira, erregulazio globalak sortzeko, eta aldaketa horiek denak egiteko iparrorratz gisa, eragile indibidualen eta enpresen interesak hartu dira beti. Horregatik ekarri ditu bererregulazio globalak muturreko merkantilizazioa eta pribatizazioa, hain zuzen ere, autoritate, ahalmen eta interes pribatuak lehenetsi direlako, autoritate, ahalmen eta interes publikoak lehenetsi ordez (esan nahi baita, modu publikoan artikulatu, eztabaidatu eta borrokatu diren interesak). Are gehiago, hainbat estatu sail, hala nola ekonomia eta justizia ministerioak, berrindartu egin dira, hartara, ekonomia global bat sor dezaten, erakunde ekonomikoekin eta bankuekin bat eginda, eta, lehen esan bezala, hori dela-eta ugaritu dira finantza globalak kontrolatzen dituzten batzorde eta erakunde pribatuak, besteak beste, kontu-ikuskaritzako etxeak, mutualitate-elkarteak, ikuskaritza-organoak eta segurantza pribatuko enpresak. Bestalde, enpresa pribatu berriek kudeatzen dituzte orain garai batean etxe eta erakunde publikoek kudeatzen zituzten arloak, hala nola energia, komunikazioa, ura, komertzioa, GKE-ak eta abar.

Gobernantza globalak suntsitu egiten ditu beraz erabakimen, autoritate eta

erantzuletasun publikoa bideratzeko bitarteko ia guztiak. Gogorazi behar dugu ahalmen politikoa definitu dugula komunitate politiko batek duen ahalmen instituzional eta territorial gisa bere erabaki propioak praktikan jartzeko. Globalizazioaren bitartez, komunitateen ahalmen politikoak, eta beraz, indibiduenak, pribatizatu egiten dira. Soilik kapitala duten indibiduoek ongizatea izan ahalko dute, eta ongizateak pilatzea esan nahiko du, ez ahalduntze kolektiboa, ezta produktiboa, fisiokratek esango luketen bezala.

Horren adibide argia da Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoaren (TTIP) akordioa. Merkataritza libreko akordio hau Europar Batasunak eta Amerikako Estatu Batuek adostu dute. Bi mundu botereon arteko merkataritza libreko akordio horretan era eredugarrian mamitzen da “lurraldearen desnazionalizazioa” (Sassen 2008, 2013) nik “demokraziaren pribatizazioa” deitzen dudana. Egiten ari diren erregulazio eta akordio global berri horietan guztietan, estatuak beren autoritatea eman diete, modu aktiboan, herri soberanitatik kanpo eraiki diren erakunde supranazionalei, zeintzuek merkatuaren eta enpresa pribatuen interesak babesten baitituzte. Lege globalak sortzearen ondorioz, nazioarteko legeria aldatu da, eta horrek eragina izan du nazio-estatuaren lege subiranoetan; gainera, negoziazioak guztiz opakuak izan dira eta botere politikoa adar exekutiboari eta enpresei eman zaie: horren guztiaren ondorioz, estatua pribatizatu da, eta ez hori bakarrik, despolitizatu egin dira langile klasearen eta, oro har, herritarren eskakizunak, inklusioaren eta ongizatearen eskakizunak. Fordismoaren garaian, sindikatuak eragile garrantzitsua zen estatuarekin hitz egiteko orduan. Ongizate estatuaren barruan, sindikatuak hiru aldetako elkarrizketa batean parte hartzen zuen patroiekin eta estatuarekin, eta, bertan, langileen interesak ordezkatzeko zitu. Fordismoaren osteko globalizazioan, gizarte elkarrizketa aldatu egin da; orain, estatuak eta kapitalak negoziatzen dute lehenik, eta, gero, enplegatailearen eta langilearen arteko negoziazio zuzenetara eramaten da. Sindikatuek gabe langileek ez daukate eragin-indarrik, eta, hala, sexu-kontratuaren ezaugarriak hartzen ditu kontratu sozialak (Pateman, 1995), ez kontratua sexualizatu egiten duelako (segregazio sexualaren bidez), baizik eta kontratu izaera osoki desagertzen delako.

Kapitalismo globalak miseria eta ondoeza handitzen ditu, eta, eskura daukagun frogek argi adierazten dutenez, pribatizazioa zenbat eta gehiago zabaldu, orduan eta pobregoa bihurtzen da langileria klasea.

NAZIONALISMOA ETA ESTATU-BURUJABETZA, DEMOKRAZIAREN OZTOPO?

Europa demokratizatzeke proposamen gehienek Batasuna federalizatu edo globalizatu nahi dute, modu kosmopolitar batean, hau da, estatu burujabetza edo nazio (herri) burujabetza ahulduz, hartara, Batasuna bihur dadin gobernu-sistema kosmopolitar, post-subirano eta post-nazional bat. Proposamen horietako gehienek eskualdeka banatu nahi dute Batasuna, eta beste zenbaitek, adibidez Zielonkak (2012), argudiatzen dute EBk ahuldu egin beharko lituzkeela bere westfaliar erako estatu egiturak eta indartu egin behar lukeela, berriz, halako autoritate-egitura polizentriko neo-mediebal bat, maila-anitzeko gobernantza-sistema batean txertatua.

Eriksen eta Fossum autoreek (2012) honela laburbildu dituzte proposamen liberal nagusiak:

Kontu-ikuskaritza demokrazia: Neoliberalak eta teknokrata europarrek babesten dute ikuspuntu hau, eta beren tresna nagusia da autoritate eta aktibo publikoak pribatizatzea, maila-anitzeko gobernantzaren bidez. Ikuspegi honen arabera, herri subiranotasuna eta autoritate nazional politikoa oztopo dira demokrazia lortze aldera, zer esanik ez ongizate estatu nazional westfaliar eta keynesiarrak (Moravcsik 2002).

Demokrazia federala: demokrata kosmopolitar ugarik babesten dute ikuspegi hau, besteak beste Habermasek (2012). Mundu post-nazional eta post-subirano bat desio dute, mundu bat zeinean estatu modernoak ez baita erabateko etsaia eta EB nazioarteko erakunde izatetik polis federal baten antzera antolatuta egotera igaroko baita, konstituzio federal batean oinarrituta.

Demokrazia erregionala edo demokrazia globala: unibertsalista kosmopolitar gehienek, hala nola Beckek (2006) apustu honen alde egiten dute. Maila-anitzeko gobernantza sistema global edo erregional bat proposatzen dute, estaturik eta naziorik gabea, eta emaitza-ren zilegitasunaren arabera funtzionatuko luke (output legitimacy), eta ez ordea parte-hartzearen zilegitasunaren arabera, zeinak estatu burujabetza nazional eta herritarra duen oinarri.

Edonola ere, guztiek konpartitzen dituzte lau ezaugarri hauek: fobia diote estatuari, nazioak mespretxatzen dituzte, moraltasun monoteista unibertsal batean sinesten dute eta merkatu askea babesten dute.

Moderatuenei helduko diegu hemen (muturreko ikuspegiei aiseago egiten baitzaie aurka), Heldek eta Habermasek ordezkatzten dituztenei, alegia, bi horiek ez baitatoz bat eta ikuspegi interesgarriak aurkezten baitituzte. Heldek herri burujabetza deuseztatu nahi du, eta estaturik gabeko demokrazia global bat sortu merkatu askeak gobernatuta; Habermasek, berriz, Europa (eta mundu) demokratiko bat bultzatu nahi du, naziorik gabea, estatu burujabetzarik gabea, baina ongizate erregimen federal eta global batekin.

Heldek dioenez (1995, 2005), mundu globalizatu honetan premiazkoak ditugu eskualdeak integrazteko prozesuak (Europar Batasuna izango litzateke eskualde horietako bat), hartara, nazio-estatuak bakarka kontrolatu ezin dituzten fluxuak eta prozesu ekonomikoak mendean hartzeko. Beraz, batez ere hauxe kritikatzten dio Europar Batasunari: estatuen batura moduan erai ki dela, ez ordea demokrazia liberala babestu nahi duen proiektu kosmopolitar baten osagai gisara (demokrazia liberala, hau da, merkatu askea eta ordezkartzeko instituzioak, interes talde ezberdinak ordezkatzeko).

Habermasen ametsa bestelakoa da eta honela deitzen da: “patriotismo konstituzionala eta demokrazia deliberatiboa” (2001, 2012). Habermasek proposatzen du gorputz konstituzional batekin eta horren balioekin bat egitea, identitate nazionalak eta bereizketa sozialak gainditze aldera; edonola ere, ikuspegi horretan funtsezkoa da nazionalismo zibikoaren ideia liberala, zeina, Habermasen arabera, nazionalismo erromantikoaren eta primitiboaren aurkakoa baita. Habermasek premiazkoa du identitate nazional hori, nahiz eta ez duen defendatzen; identitate horren oinarria, hala ere, ez dira hainbatek konpartitzen duten ondare kultural kontingente bat, baizik eta balio-multzo liberal-ilustratu, arrazional eta unibertsalista bat. Hortaz, paradigma liberal sozial-demokratikoaren barruan kokatzen du bere proposamena Habermasek, eta ez dator bat Helden ikuspegiarekin (1995, 2005), hark zalantzan jartzen baitu politika keynesiarrak eta ongizate estatua benetan bideratu ote daitezkeen. Edonola ere, bi-biek diote Europar Batasunak post-nazionala eta post-subiranoa izan behar lukeela, eta biei iruditzen zaie nazionalismoa oztopo bat dela kontsentsu arrazionalera bidean, gizartearentzako erabaki politiko egokienak hartzeko.

MUNDU KOSMOPOLITAR POST-SUBIRANOA

Aro westfaliarreko estatu burujabetza puztuta baizik ezin dugu sinetsi mundu funtsean kosmopolitar batean bizi garela. Modu honetan ulertu izan da burujabetza westfaliar aroan: printzipio bat zeinaren arabera, komunitate politiko batean, autoritate goren bat egon behar baitu komunitate politiko hori existitu dadin eta ekin dezan. Beraz, burujabetzak berarekin dakar estatuaren eta komunitatearen arteko harreman edo bereizketa jakin bat. Edonola ere, estatuaren eta komunitatearen arteko harremana aldatu egin da azken hamarkadotan, eta, hortaz, burujabetzaren printzipioa berpentsatu egin beharko da, ez ordea neutralizatu.

Komunitate politikoen barne-konplexutasuna modu esponenzialean handitu da, ongizate estatua garatu ahala. Ondorioz, estatuaren eta komunitatearen arteko harremana ere konplexuagoa da orain; komunitate politikoak gero eta integratuagoak dira, eta estatuaren funtzioak ere maila beheran ari dira ugaritzen. Aldaketa horien aurrean, zenbaitek aldarrikatu dute subiranotasuna desagertu beharko litzatekeela, adibidez kosmopolitarrek; beste batzuek, ordea, adibidez demokrata erradikalek, uste dute burujabetza inoiz baino premiazkoagoa dela orain, konplexutasun horren ondorioz; izan ere, subiranotasunaren zeregina baita komunitatearen eta estatuaren arteko harremana artikulatzea, hartara, biak izan daitezten gobernatzeko eta gobernatuak izateko gai, elkarri balegozkio bezala, nahiz eta ezberdinak izan (Hinsley, 1986). Non eta estatua eta komunitatea ez diren bereizten, ez dago burujabetzarik; non eta estatua eta komunitatea ez diren elkarren mendekoak, burujabetzak ez dauka inongo funtziorik.

Eraldatu beharreko marko kontzeptual horrekin hezi izan gara. Jakin badakigu burujabetza formalaren zeregina dela boterea modu eraginkorrean exekutatzen dela ziurtatzea, eta zeregin hori demokratizatu egin da hein batean behintzat: enperadore subiranoa atzean utzi dugu –aita santua, erregea–, eta herriaren burujabetzaren kontzeptuari heldu. Sistema demokratikoetan derrigorrean egon behar dira hala loturik komunitatearen autoritate politikoa eta estatuaren ahalmen politikoa, eta gaur egun ez dago ekintza politikoa eta erabakiak zilegiztatzen dituen beste printzipio demokratikorik, herri burujabetza baino.

Aldiz, aro global hau des-demokratizazioaren garaia da, herriaren erabakiak eta autoritate publikoa pribatizatzeko garaia, eta prozesu horrekin batera ari dira hainbat lekutako herritarrak ostu zaien burujabetza eskatzen, ez bakarrik Euskal Herriko zenbait lurraldetan, Katalunian eta Eskozian, baita

Italia eta Belgikako iparraldean eta Britainia Handian ere; azken horretan, Brexit-ari buruzko erreferenduma egin zuten, eta Europar Batasunetik alde egiteko bozkatu zuten herritarrek.

Monopolizazio horretan, burujabetza enpresa indartsuenei atxikitako adar exekutiboek dute, bata bestearekin lehiatzen dira eta independienteak dira elkarren artean. Ondorioz, zentro horietako kideek nolako indarra daukaten, halakoa izango da gure patua, eta gure ongizatea, berriz, ez da zenbait arau orokorren arabera izango, baizik eta kapitala dutenen arauen arabera (hori da TTIPa). Herri burujabetzaren ideia aplikatzen ez duten autoritate gune berri horiek ezinbestean dira pribatuak: exekutiboen, enpresen, lobbyen eta interes-taldeen autoritate eta arauak dira. Haiena da herriaren gobernu. Demokrazia eraginkorra izateko gakoa ez da nazio, estatu edo komunitatetik kanpo edo horren barruan burujabetza hedatzea edo hainbat burujabetza batzea, ez: demokrazia eraginkorra izateko gakoa da beste ideia hori, zeinaren arabera herriari ematen baitzaio agintari subiranoen autoritate mugagabea, eta eraginkorra izan dadin, herri horrek gaitasuna izan behar du bere erabakiak errealitate politiko bilakatzeko. Gaitasun politikoa burujabe izateko herritarren gaitasun sozio-ekonomiko erakundetua eta lurraldetua da. Herri burujaberik gabe ez dago demokraziarik eta burujabetzak emantzipaziorako gaitasuna galtzen du. Are gehiago, burujabetza hori erdiesteko, ezinbestekoa da instituzio politikoen egitura bakar bati hertsapen-autoritatearen monopolioa ematea, eta horrek ez dauka zerikusirik autoritate legegileko hainbat zentro egotearekin (udal batzarrak, lurralde legebiltzarrak edo eskualdekoak, etab.). Funtsezko ideia da autoritate-egitura bakar hori izango dela erantzulea, azken buruan, egitura hori ezarri duen eta era berean egitura hori osagabatzeko eskubidea daukan herriaren aurrean (Yack, 2012). Eta, hauxe da garrantzitsuena: herriak eduki behar du egitura horiek osagabatzeko gaitasuna, ez soilik eskubidea edo ahalmena.

Lockek bi botere proposatu zituen gobernu-sistemaren barruan: bata, autoritate legegilearen egiturari heltzen zion; besteak, berriz, autoritate (autonomia) legegilea osatzeko eta osagabatzeko herriak zeukan boterea zuen muinean. Biak ari dira gaur egun pribatizatzen, hala egitura legegileak nola herriaren boterea (gaitasun politikoa izendatu dudana). Bodin eta Hobbes autoreen esanetan, autoritate subiranoa diseinatu zen gizarte aurre-modernoetako autoritate-zentro ugari, gainjarri eta lehiakideak ordezkatzeko aldera; hortaz, aztertu al dute kosmopolitarrek eta demokrazia globalaren sustatzaileek ea zer-nolako ondorioak ekarriko dituen estatu eta herri burujabetza deuseztatzeak? Orain arte ezagutu dugunaren arabera, estatu eta herri burujabetzarekin daude loturik gobernu mugatua, erantzuletasun

publikoa eta legea. Are gehiago, herri edo nazio burujabetza autoritate arbitrariotzat jo nahi izateak, halako moraltasun unibertsal eta kosmopolitar baten arabera, ez dauka funts politikorik zeren demokraziaren muina ez baita moraltasuna, ezpada gaitasun politikoa eta ongizate kolektiboa.

Giza komunitateetan, arbitrariotasuna eta kontingentzia hor daude beti, izan ere, besteak beste, komunitateak erabakitzen duen hori ez duelako sekula komunitate oso-osoak erabakitzen (adibidez, haurrek, migranteek eta beste hainbat pertsonak ezin dute bozkarik eman, ez eta parte hartu ere), baina, hala ere, komunitate osoari ezartzen zaio. Erabaki bat ezin badu inoiz ere erabaki hori ezarriko den komunitate oso-osoak hartu, gatazka eta arbitrariotasuna presente egongo dira, egon behar dira, nahiz eta aurrez adostu diren arau eta legeen arabera ezarri erabaki hori. Hobbesek aspaldi esan moduan, “Auctoritas non veritas facit legem”; “Autoritateak egiten du legea, ez egiak”. Eta autoritatea, berriz, Weberrek argi asko azaldu moduan, menderakuntza-molde bat da.

Demokrazia da autogobernua bidetzat eta xedetzat duen botere lurraldetu, kolektibo eta politiko bat, eta bere arauak ditu. Demokratizazioa, ondorioz, domestikazio prozesu bat da, eta, eskola publikoak bezalaxe, domestikazio horretan herritarrak boteretzea du xede.

Demokraziak populazioa autogobernurako gaitzea du helburu, eta horretarako menderatze mekanismo ezberdinak ditu. Sistema politiko eta legalak ez dute funtzionatzen ez badaukate obediencia inposatzen duen hertsapen-mekanismoak, eta herri burujabetzak zilegiztatzen eta zuritzen du halako hertsapen-mekanismoaren autoritate arautzailea.

Autoritate demokratikoaren ideiak indarra dauka hain zuzen ere herri burujabetzan daukalako oinarria, betiere herri burujabetza ulertuta komunitate batek daukan gaitasun politiko gisa (eta ez soilik eskubide), bere burua bere erabaki propioen arabera erreproduzitzeko.

BIBLIOGRAFIA

- Bech, Ulrich (2006) *Cosmopolitan Vision*. Cambridge: Polity Press.
- Eriksen, Erik O. eta Fossum, John E. (2012) *Rethinking Democracy and the European Union*. New York: Routledge.
- Goikoetxea, Jule (2017) *Privatizing democracy: Global ideals, European politics and Basque territories*. Oxford: Peter Lang.
- Habermas, Jürgen (2012) *The crisis of the European Union: a response*. Cambridge: Polity Press.
- Held, David (2005) "Principles of Cosmopolitan order" Gillian Brock & Harry Brighouse (ed.), *The political Philosophy of Cosmopolitanism*. Cambridge University Press.
- :- (1995) *Democracy and the Global Order*. Cambridge: Polity Press.
- Hinsley, Harris (1986) *Sovereignty*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Hoogue, Liesbet eta Marks, Gary (2001) *Multi-level Governance and European Integration*. Boulder: Rowman & Littlefield.
- Jessop, Bob (1982) *The Capitalist State: Marxist Theories and Methods*. New York: New York University Press.
- :- (2008) *State Power: A Strategic Relational Approach*. Cambridge: Polity Press.
- Moravcsik, Andrew (2002) "In Defence of the 'Democratic Deficit': Reassessing the Legitimacy of the European Union". *Journal of Common Market Studies*, 40, 4: 603-34.
- Pateman, Carol (1995) *El contrato sexual*. Barcelona: Anthropos.
- Sassen, Saskia (2013) "When Territory Deborders Territoriality". *Territory, Politics, Governance*, 1, 1: 21-45.

:- (2008) *Territory, Authority, Rights: From Medieval to Global Assemblages*. Princeton: Princeton University Press.

Yack, Bernard (2012) *Nationalism and the Moral Psychology of Community*. Chicago: Chicago University Press.

Zielonka, Jan (2012) *Europe as Empire: the nature of the enlarged European Union*. Oxford: Oxford University Press.

Burujabetza eta Erabakitze eskubidea

Andoni OLARIAGA AZKARATE

Filosofoa eta Iratzar Fundazio kidea

DEMOKRAZIAREN PRIBATIZAZIOA ETA BURUJABETZAREN GALERA

Neoliberalismoaren krisiaren ondorioz Europan indarra hartzen joan den ideia bat da burujabetzarena. Globalizazio ekonomikoaren ondorioz, sektore popularren lan baldintzen okertzearekin batera, eta estatuen, herrien eta herritarren burujabetzaren galeraren aurrean, diskurtso politikoaren zentraltasuna hartu du burujabetzaren nozioak. Hala ere, bi modu kontrajarrian erabili ohi da: batetik, kapital finantzieroaren interesak defendatzeko asmoz (Donald Trump-en *America first*, edota Brexitaren *Take back control* kanpaina kasu); eta bestetik, mugimendu eraldatzaileek ulerkera anitzekoa den burujabetza aldarrikatzeko asmoz, elikadura, lurralde, gorputz, energia eta abarren burujabetza.

Estatuek eta herritarrek erabakitze ahalmena eta burujabetza galdu dute indar supranazionalen mesedetan, eta kapitalismoak herritarrek beren burua gobernatzeko eta ahalduzko ahalmen, estruktura eta mekanismoak pribatizatzen ari da. Europar Batasuna, esaterako, kapitalismoaren gailu bat dela gero eta nabarmenagoa da (Goikoetxea, 2017: 49).

Ondorioz, funtsean demokraziaren pribatizazioa gertatzen ari da (Goikoetxea, 2017: 12). Pribatizazio horren ondorioz, erabakiak hartzeko ahalmena eta instituzio publikoak inork aukeratu gabeko esku pribatuetara egiten ari da jauzi. Testuinguru horretan, “Europar Batasunaren maila-anitzeko gobernantza-sistema neoliberalen ez da estatua ahultzen, estatuaren demokratikotasuna ahultzen da.” (Goikoetxea, 2017: 40). Beraz, estatu-nazioek bizirik jarraitzen dute, baina haien funtzioa aldatu dela esan daiteke.

Horren aurrean, errealismo kapitalistak alternatibarik ez delako sinesmena are gehiago indartu du (Fisher, 2016: 30). Batetik, kapitalismoaren aurreko alternatibek indarra galdu dute; bigarrenik, kapitalismoak irentsi eta merkantilizatu egin ditu, eta modu bertikalean estrukturatu, diferentzia, des-

berdintasuna eta multiplizitatea; eta hirugarrenik, belaunaldi oso bat Berlingo harresiaren erorketaren ondoren jaioa dela ezin dugu ahaztu. 1960 eta 1970. hamarkadetan, kapitalismoaren arazoa kanpo energiak nola barnerratu zen, gaur egun, alderantziz gertatzen da: kanpoan zeuden indar guztiak barnerratu ondoren, oraindik funtzionatu dezake kanpoko ezer kolonizatu eta apropiatu gabe? Izan ere, kapitalismoak pentsatu daitekeen esfera oro bete du gaur egun, pentsaezin bihurtuz ezin alternatiba.

Testuinguru horren aurrean, alternatiba ezaren sinesmenaren eta demokraziaren pribatizazioaren aurrean, formulazio eta argi izpi berriak aurkezten ari zaizkigu pixkanaka. Argi izpi horien paradigma aurkezten saiatuko gara, labur bada ere.

DEMOSA ETA BURUJABETZA

Subiranotasuna da, oroz gain, mugimendu eraldatzaileen formulazio berrien paradigma berria. Zer da burujabetza?

Komunitate politikoak geroz eta botere instituzional eta konstituzional gutxiago izan, orduan eta subiranotasun edo burujabetza murriztagoa izango du komunitate horrek bere erabakien arabera birsortzeko, eta, ondorioz, demokrazia gisa bizirauteko. Hala definitu dut burujabetza: komunitateak bere burua gobernatzeko duen gaitasun politikoa. (Goikoetxea, 2017: 154)

Tradizioz, burujabetza nazio-estatuei esleitu izan zaie. Baina historikoki garapen desberdina izan du burujabetzaren ulerkerak. Jaume Lopezen iritziz lau fase izan ditu (Lopez, 2017: 191-192): lehenik, XVII. Mendeko Westfaliako bake tratatuaren ondorioz estatu-nazioen sorrera eta integritate territorialaren printzipioa nagusitu zen, inperio europarrak osatzen zituzten nazioak izanez eskubidearen subjektu; bigarrenik, II. mundu gerraz geroztik Europarrek kolonizatutako herriak ziren erabakiaren subjektu; hirugarren olatu batean, XX. mende bukaeran, hain zuzen, estatu gabeko nazioak gehituko ziren ekuaziora, eta hau litzateke autodeterminazio eskubidearen ulerkera klasikoaren paradigma; eta laugarrenik eta azkenik, baldintza demokratikoak betetzen dituen edozein demos izango litzateke eskubidearen jabe, eta hau erabakitze eskubidearen paradigma izango litzateke, aurrerago azalduko duguna.

Subiranotasuna, funtsean, “komunitate batek bere burua gobernatzeko daukan gaitasun politiko instituzional eta territorializatua” (Goikoetxea, 2017: 19) dela esan dugu. Gaur egun, komunitate hori demos gisa ezagutzen dugu, eta historikoki nazio gisa ulertu izan da. Labur esateko, nazio kontzeptua ilustrazio frantsesean mamitu da, bi bidetatik: batetik, nazioaren ikuspegi frantsesa, ustez progresista, arrazionala, ilustratua, hiritarra eta unibertsalista, estatua nazioarekin parekatzen duena formulatu da, eta estatu-nazioek (Frantziar eta Espainiar estatuak, batik bat) egin dute kontzepzio horren aldarria. Horri erantzunez, alemaniar “erromantizismoa” etorri zen, erromantikotzat, partikularistatzat, kontserbadoretzat eta identitariotzat jo ohi dena, estatu gabeko nazioen eta kulturen aldarria egitera. XX. mende bukaeratik aurrera bereizketa faltsu hau agerian jarri zen.

Nazioaren ordean, egun, demosa da borondate eta propietate objektibo jakin batzuk dituen lurralde jakin bateko herritarrak definitzeko kontzeptua. Nazioak ez bezala, demosak kontzeptu modernoak izaki, ez du definizio hain zehatzik: harremanen, instituzioen, lurraldeen eta praktiken eta diskurtsoen multzo bat da (Goikoetxea, 2017: 81). Hala ere, Goikoetxeak dionez, *demos* orok, bere biziraupenerako, alde subjektibo (borondate subjektibo kolektiboa, burujabetza) eta objektiboak (subiranotasun instituzionala) ezinbesteko ditu. Demosa eta burujabetza elkarren eskutik doaz, hortaz.

Gaur egun, proiektu eraldatzaile orok (mugimendu sozialek, alderdi politikoek, sindikatuek, eta abar) mundu mailan eta baita Euskal Herrian ere, kontzeptualizazio berriak egiten ari dira, metafora berriak erabiltzen ari dira, bai subjektu politikoak artikulatzeko, eta baita borroka sozial eta politikoak tesuingurutzeko ere, egungo teoria politikoei eta gizarte joerei lotuago dagoen sintesiak eta ikuskera efikazagoak eta gaurkotuagoak osatzeko.

Burujabetza da mugimendu eraldatzaileek aldarrikatzen dutena, bakoitzak bere esparrutik: lurraldearen burujabetza, gorputzena, *demosena*, subiranotasun energetikoa, aisialdi burujabetza, soziala... Bestetik, *demosen*, herritarren, norbanakoen eta kolektiboen erabateko erabakitze eskubidea eta ahalmena aldarrikatzen da, ahalmena izatea sozialki eta kulturalki eragiten gaituzten edozein gairen aurrean tresnak eta kapazitatea izan dezagun erabakiak hezurramitzeko. Paradigma berri hau geratzeko etorri dela dirudi. Galdera da: Euskal Herriko mugimendu eraldatzailea ze paradigmatik dator eta norantz doa?

EUSKAL HERRIKO AURREKO ZIKLOAREN HIPOTESI ESTRATEGIKOA ETA METAFORAK

Independentzia eta sozialismoa

Historikoki burujabetza eta erabakitze eskubidea ezker abertzalearen tradizioan guztiz txertatua egon dela esan behar da lehenik. Hala ere, ezker abertzaleak XX. mende erdialdera osatu zituen bere zutabe ideologiko izango ziren hipotesi estrategikoa eta metaforak. Beraz, garai hartako burujabetzaren, nazioaren eta erabakitze eskubidearen ulerkerarekin inkorporatu zituen. Hori kontuan hartuta, Ezker abertzalearen hipotesi estrategikoak eta metaforak berrikuspen eta berregokitze bat behar dutela analisi konpartitua da gaur egun. Hipotesi estrategikoa, metaforak eta mundu ikuskera gaurkotu egin beharrean gaude, hortaz.

Ezker independentistaren ardatz ideologiko eta sintesi nagusietako bat, independentzia eta sozialismoa izan da, eta oraindik ere, halaxe izaten jarraitzen du. Alegia, klase borroka nazio askapena da Euskal Herrian, edo bestela esanda, borroka nazionala klase borrokaren espresio bat da. Europan nazio borroka eta klase borroka banatu egiten dira intelektualki XIX. eta XX. mendeetan. Ondoren, produkzio ideologiko ikaragarria egon da XX. mende osoan zehar kontzeptu horiek nola lotu, batera doazela adierazteko, eta abar; edo batera ez doazela adierazteko. Oraindik orain, eztabaida asko horrelakoak dira: zer dio Leninek auzi nazionalari buruz, Marxek zer zioen... Mundu mailan bereizi egin ziren borroka nazionala eta soziala, eta guk gure ADNan ere bereizita inkorporatu genituen, baina era berezi batean: txanpon beraren bi aldeak direla esan genuen, Txabi Etxebarrietak sintetizatu zuen bezala, eta ondoren Argalak teorizatu.

Ezker abertzalearen hipotesi estrategikoa den hau logikoa denez bere garai-ko iruditeria jakin baten gainean garatu zen ordea: nazio-estatuaren iruditeria, autodeterminazio eskubidearen paradigma (kolonietan eta eskubide historikoetan oinarrituta) eta apriorizko lurralde-nazioa.

Hiru metaforak: subjektua, lurraldetasuna eta estrategia

Hipotesi estrategikoaren sintesiarekin batera hiru metafora artikulatu ziren XX. mende erdialdetik aurrera, ekintza politikorako ezker abertzalearen zutabe ideologikoak izango zirenak. Lehenengo metaforak, independentziarako lehen pausurako *subjektu politikoari* egiten dio erreferentzia.

Maltzagaren kokaeran oinarrituz, Telesforo Monzonen Maltzaga metaforiko aldarrikatu zuen, abertzaleen arteko batasuna: “Gerokoak geroko utzi. Orain, goazen abertzale guztiok batera Maltzagara”. Txibertan saiatu zen hain zuzen hori hezurmamitzen, eta ondoren, 1998ko Lizarrako akordioa aipatu daiteke, nolabait horren hezurmamitze bezala.

Lehenik, aipatu behar da ez dela metafora nazionala, EAEkoa baizik, eta ez du balio Ipar Euskal Herrirako ezta Nafarroarako, geografikoki EAEko esparruaren erdian kokatua baita. Bestalde, metafora zaharra da, eta EAJrekiko subalternitate estrategikoa dago metaforaren atzean, non euskal burgesia nazionalista ezinbestekoa den edozein askapen estrategia aurrera eraman ahal izateko. EAJren lidergoa indartzen du (eta herri sektoreen subjektibizazioa ahuldu), hortaz, ikuspegi honek. Bestalde, metafora horrek subjektua definitzen du, ze ardatzen inguruan polarizatu behar den gatazka sozial eta politikoa. Ezker independentistaren eztabaida gakoetako batzuk alor horretan aurkitzen dira: batzuek Maltzaga hiltzat emanez, ardatz sozial hutsa aldarrikatzen dute; beste batzuek Maltzaga birpentsatzea proposatzen dute, eta abar. Batak zein bestek, arriskua dute gaur egun debate horretan dilema faltsuak proposatzeko. Izan ere, ezin da ahaztu estatu gabeko nazioetan ardatz nazionala eta soziala uztartu egiten direla.

Bigarren metaforak *lurraldetasunaren* afera definitzen du. *Jarrón roto* izenez ezaguna, metafora horrek Euskal Herri mailako ikuspegia indartzen lagundu du, erritmo desberdinetako estrategiei dimentsio orokorra emanez, helburua hautsitakoa demokratikoki bide desberdinetatik batzea izanik. Lurralde zatiketa, estatuen inposizioa izan dela gogorarazten digu. Afera litzateke, metafora horrek lurralde estrategia eta helduleku juridiko jakin batzuk izan dituela bidailagun. Metafora honetan interesgarria oinarrian dagoen posizio ideologikoa da, ikuspegi horrek auresuposatzen duen estrategia: batu ditzagun lehenengo estatuek indarrez banatutako puskak, alegia, denok ala inor ez. Horrela, aurreko zikloan egindako proposamen taktiko gehienek aldez aurretik definitutako nazioa birkonposatzea hobesten zuten: KAS alternatibatik hasiz, 1991an Herri Batasunak proposatutako autonomi estatutua, 2007an Batasunak Anaitasuneko proposamena, 3+1, eta abar.

Beraz, estrategia aldaketaren arrazoia estrategikoa edo funtzionala da; ez du funtzionatzen lurralde batasuna abiapuntutzat hartzeak bidearen lorpenak bidearen hasieran jartzen gaituelako, bidea bera oztopatuz. Indar korrelazioak ezinezko egiten dute batasuna abiapuntu hartzeak, beraz, beste estrategiak garatu behar dira.

Metafora horrek estrategia bilateral bat exijitzen du, estatutu berri bat estatuarekin adostu behar delako. Eta eskatzen du estrategia bat, adostasun horra bidean estatua mahai batean eseri arazteko. Azken metafora, hortaz, *aldebikotasuna* da, negoziazioa. Aurreko biak aldebiko eskema baten baitan proposatzen dira. Estatua mugiarazi behar da eta mahai batean eserarazi, lehenik abertzaleen batasuna lortu behar dugu mahai horretan herri bezala aurkezteko, eta gero negoziatuz autodeterminazio eskubidea biltzen duen autonomi estatutu bat, ahal bada lau herrialdetarako lortzen saiatuko gara. Aldebiko negoziatioak estrategia jakin bat suposatzen du: akzioa-errepresioa, horrekin estatuaren deslegitimazioa, mobilizazio permanentea, eta abar.

Estatuek inposatutako zatiketa estatuek beraiek desegitea du estrategia horrek muina. Estatuaren menpe jartzen gintuen, eta zatiketaren aspektu sozial, kultural eta politikoa borrokatzeari, hegemonia borrokatzeari, muzin egiten zion. Alegia, zatiketa desagertzeak jendearen zatiketa mentalak gaindituko zituela pentsatzea ez zen egokia.

HIPOTESI ESTRATEGIKOAREN GAURKOTZEA

Hipotesi estrategikoaren eta metaforen kritika ez da ulertu behar hauen agorpena literal bezala, baizik eta horiek gaurkotzeko beharra azpimarratzeko mugimendu bezala. Beraz, eztabaida eta gaurkotze saiakera honetan dilema faltsuak eta dikotomia interesatuak eraikitzeak arriskua nabarmena da. Izan ere, azken urteetako eztabaida askotan interesa nabari daiteke, totem zaharren ordeztu, totem berriak inposatzeko: eta horretarako, totem berrien indarra totem zaharrekiko polarizazioan eraikitzen da, bata eta bestea txuri eta beltza bailiran marraztuz, eta bata eta bestearen artean hautatzera derrigortuz.

Esaterako, ardatz soziala (PNV kanpoan uzten den nolabaiteko ezkerreko mugimenduen arteko aliantza populista) Maltzagari kontrajarriz planteatzea, eskluiuentek ez diren eta bateragarriak izan behar diren bi ardatz kontrajartzea esan nahi du. Modu berean, aldebikotasuna aldebakartasunari kontrajartzea, sinplekeria izateaz gain, bata bestea inplikatzeko duela ahazten du. Eta azkenik, alderdien aliantzen ordeztu mugimendu sozialen preeminentzia politikoa aldarrikatzeak, bi poloen arteko dialektikari muzin egiteaz gain, ez dio mesede egiten eztabaida estrategikoaren mailari, ezta ere hipotesi estrategikoaren gaurkotzearen beharrari. Operazio ideologiko horiek efikazia eta errealismo politikoa gutxi daukate.

Hortaz, dikotomia eta dilema faltsuak eraikitzekeo tentazioari eutsiz jarraituko dugu aurrera. Eta mendebaldeko ikuspegi logiko erredukzionista nagusia gauditzen saiatuz, kontuan hartu beharko dugu Maltzagaren eta Jarrón roto-ren iruditeria kritikatzeko, ez dela kontrakoa (edo ustez kontrakoa dena) defendatzea ezinbestean, ezpada horien indargune eta ahulgu-neak azpimarratu nahi izatea, gaurko testuinguru eta ekinbide politikora-ko metaforak eta hipotesi estrategikoa gaurkotzeko asmoz

Autodeterminazio eskubidetik erabakitze eskubidera

Gaur egungo jendarte joera, estrategia politiko eta garaiko errebindikazioen txapel eta sintesi berriak eraikitzekeo beharra nabarmena da. Kasu horretan, azpimarragarria da gaur egungo proiektu eraldatzaile, alderdi zein mugimendu sozial, politiko eta abarren eskari guztietan ikus dezakegula, burujabetzaren eta erabakitze eskubidearen defentsa aldarrikatzen dela oroz gain: lehenengoa, burujabetza, erabakitze ahalmena herrian eta herritarrengan datzala aldarrikatzeko; eta bigarrena, erabakitze eskubidea, herri, norbanako zein mobilizatzen diren kolektiboek dagokiela defendatzeko.

Erabakitze eskubidearen paradigmak autodeterminazio eskubidearen ideiak barneratu eta pausu bat aurrera ematen du. Izan ere, erabakitze eskubidearen defentsa ez dago lotua ezinbestean sentimendu nazionalistarekin, alegia, autodeterminazio eskubidea desnazionalizatu egiten du. Nazioak jartzen baldin badira baldintza bezala erabakitze eskubidea gauzatzeko, estatu-nazio zapaltzaileek gure gainean jartzen diguten galga bera (estatu duenak baino ezin du erabaki) jartzen ariko ginateke besteei, gure buruari ere. Beraz, eskaeraren zilegitasunaren arrazoik eta kausak begiratzeari utzi, eta prozeduraren egokitasunari begiratzen dio gehiago paradigma berriak. Errebindikazio demokratiko horrek subjektu politiko kolektibo bat aitortzen du, eta erabakitzearen gauzapena modu autonomoan eta aktiboan egin behar dela aldarrikatu. Hortaz, bokazio emantzipatzailea dauka, autonomia, norberaren subjektua bilakatzea. Beraz, burujabetzaren ideia dago guztiz lotua (Lopez, 2017: 114-115). Erabakitzekeo ahalmena da eta kolektiboaren aitortza. Alegia, ezinbestekoa da herri errelebantea identifikatzeko gehiengoaren erregela aplikatzeko, nonbaiten minoritarioa dena, beste leku batean maioritarioa izan daitekeelako. Zentzu komuneko da, herriak ezin du erabaki, norbaitek herria zein den erabakitzen duen arte. Nola erabaki zer herrik duen erabakitze eskubidea?

Beraz, erabakitze eskubidearen errebindikazioa oinarritzen duena printzipio demokratikoaren eta estatuaren kontzepzio determinatu bat da, ez nazionalitate printzipioa (Lopez, 2017: 183-184). Ez da nazio batek erabakitze eskubidea daukala nazio delako, baizik eta nazio bat zara erabakitze eskubidea erreklamatzeko duzulako (Lopez, 182-183). Hori bai, erabakitze eskubideak ez du ukatzen nazio batek bide hori erabil dezakeenik, edo historiaren eta deboluzioaren diskurtsoa erabil ezin dezakeenik independentzia lortzeko: esaten duena da, ez dela ezinbestekoa.

Erabakitze eskubidea autodeterminazio eskubidearen garapena da, hortaz, ez ukazioa ezta kontrako formulazioa: ez dago zertan muga batzuk izan behar alde aurretik nik herri bezala nire etorkizuna erabakitzeko eskubidea izateko, eta ez dago arlo nazionalera soilik mugatua. Beraz, autodeterminazio eskubidearen garapena da, eraldatzaileagoa eta demokratikoagoa: edozein eskaria politikori, estatu berri bat barne, bide emateko formula edo markoa. Eta oroz gain, efikazagoa izan daitekeela erakutsi du, Katalunia kasu. Afera da, ez daukala translazio legalik, izan ere, historikoki legea eskaera eta mobilizazio herritarren ondoren etorri ohi da, horiek kristalizatzera.

Burujabetza: txanponetik poliedrora

Erabakitzeko eskubidearekin batera burujabetzaren kontzeptua da zentrala egun. Aurretik esan dudanez, ezker abertzalearen hipotesi estrategikoa da, klase borrokaren espresioa borroka nazionala dela euskal herrian. Beraz, borroka nazionala eta soziala banatuta ageri dira hasiera batean. Izan ere, kontzeptu biak banatu egin dira Europan XIX. eta XX. mendeetan, eta ezkerrean eman diren eztabaidak bi horien banatzetik abiatu dira, hasieran esan bezala. Esan dugun bezala, gure herriko sintesia izan da kontzeptu horiek batera doazela adieraztea, txanpon beraren bi aldeak direla aldarrikatuz.

Independentziaren paradigmak autodeterminazio eskubidea izan du iruditeria gisa, eta horren atzean nazio-estatuaren iruditeria egon izan da. Horrez gain, “independentziak, bere hartan, ordena neoliberal kapitalistaren barnean ezarriko luke Euskal Estatu burujabea” (Gabilondo, 2017: 173). Noski, Gabilondok ondoren azpimarratzen duen bezala, ez dago burujabetzarik independentziarik gabe, independentzia pausu ezinbestekotzat joz. “Independentzia izanda ere, egiazko helburua bestelakoa dela: independentzia horretatik abiatuta burujabetza forma berriak berreskuratzea” (Gabilondo, 2017: 175). Baina burujabetza Espainiar eta Frantziar estatuen barruan kokatzeak, zapalkuntza bi aldiz ezartzea da. Alegia, Ibarretzek dioen bezala

“al igual que Catalunya, no somos, como otros países europeos, interdependientes dentro de la Unión Europea, sino países dependientes en segundo grado de Europa y de España” (Lopez, 2017: 8).

Burujabetza, beraz, harago doa, eta sintetizatu egiten ditu borroka nazionala eta soziala: demokrazia lurralde jakin batean demos batek beren buruari dagozkien afera guztiak (sozialak, ekologikoa, eta abar) gobernatzeko kapazitate bezala definitzen baititu. Alegia, sozialismoa beti da nazionala, beti da lekutua, herritartua, lokala. Burujabetza da botere ahalmena non dagoen, elite eta estatu-nazioetan, ala herritarrengan. Gure buruari dagoz-kigun aferak gobernatzeko kapazitatea da demokrazia, eta gauzatzeko ahalmena izatea, burujabetza.

Burujabetza, Subiranotasuna kontzeptuarekin ez dago bi aldeetako txanponik, aldiz, *poliedro* antzeko baten aurrean gaude, non poliedroaren alde bakoitzean bata besteari eragiten dioten aldagaiak leudekeen: lurraldea, demokrazia, bizitza (errekurtso energetikoa, elikadura, ekologiko, eta abar), zaintza eta gorputza... Aldagai bakoitza kontuan hartu gabe ezin da burujabetzaz hitz egin, batak besteari eragin eta baldintzatzen diolako.

Subiranotasunak sintetizatzen du gure hipotesi estrategikoa, ez baita bakarrik lurraldean ardatzen, baizik eta borroka sozial oro ardatzen ditu, eta beraz, gure tradizio biak batzen ditu, independentzia eta sozialismoaren sintesi bat da. Burujabetzak ahalduntzea esan nahi du, herritarren ahalduntze sozial, nazional, feminista, ekologiko, estatal, eta abarra.

Subiranotasuna eta erabakitze eskubidea batu egiten dira orduan. Erabakitze-ko eskubidea, autodeterminazio eskubidearen garapen bat da printzipio demokratikoan funtsatua, nazionalean baino. Alegia, edozein komunitatek erabaki dezake bere etorkizunaz, ez bakarrik etorkizun nazionalaz, baizik eta sozial, eta abarraz. Estatu-nazioen mugak gainditzen dira, eta burujabetza ulertzen da lurralde bati lotuta, demokraziari lotuta. Burujabetzaren paradigmak ez du nazio-estatuaren paradigma atzean, izatez, ez du ezta nazioa derrigorrez, eta erabakitze eskubidearen paradigmatikoa barruan kokatzen da.

Paradigma berriak, aurrekoa bota baino, birformulatu eta gaurkotu egiten ditu: bai hipotesi estrategikoa, kontzeptuak eta baita metaforak. Batetik, Maltzagaren orde, bestelako bideak proposatzen dira, batzuk kontrakoa proposatzen dute, ardatz sozial hutsa; beste batzuek, aurrekoari muzin egin gabe, Maltzagako izpiritua birpentsatzeko beharra azpimarratzen dute. *Jarrón roto*-ren metaforaren atzean egon den birosaketa estrategia hobetsi beharrean eta horrek dakarren galga guztia, estatugintzaz hitz egiten dugu

egun: dauzkagun egituretatik (estatuak delegatutakoetatik) abiatu daitezke prozesu eratzailleak, aurreko eskemak zeukan muga guztiak saltatuz. Honen atzean dagoena da, ahalduz, ahalmen, erabakitze eta burujabetza gehiagoren aldarrikapena. Alegia, ez dugu jada alde aurretiko pausu bat jartzen kondiziotzat: jada, prozesu eratzailleak martxan jartzea aldarrikatzen dugu. Eta hori, era aldebakarrekoan gauzatuko dugula. Beraz, paradigma berria aurrekoaren garapen eta egokitzapen bezala ulertu behar da.

PARADIGMA BERRIRAKO METAFORA BERRIAK

Paradigma berriko kontzeptuak esparru ideologikoan borroka-gune zentralak bilakatu dira. Alde batetik, burujabetza nazio-estatuetakoz ezkerreko haien lurraldeko demokraziarekin lotzen dute, erabakitze ahalmena estatu espainiar zein frantziarraren barnean kokatuz. Nazionalismo banalaren fenomeno bizia agertzen da berriz, esan gabeko nazioa estatu-nazioarena izaki (“periferikoa” baztertuz), funtsean erabakimena estatuei dagokiela esaten baitute bai ezker bai eskuin estatuek. Erabakitze eskubidearekin, hortaz, berdina gertatzen da. Batzuek erabakitze eskubidea estatuen marroan baino ez dute aplikatzen; besteek mobilizatzen diren demosetara aplikatzen dituzte, Katalunian kasu.

Borroka ideologiko horren aurrean, hortaz, kontzeptu hauek edukiz gorpuzteko borroka gain, kontzeptu horiek gure errealitateara aplikatu beharrean gaude. Hortaz, hipotesi estrategikoa gaurkotu eta metafora zaharrak birformulatzeko, hiru kontzeptuon erabilpen eta borroka ideologikoa egin beharra agerian geratzen da. Erabakitze eskubidea, demokrazia eta burujabetzaren paradigmatikaren barruan pentsatu behar ditugu sintesi eta metafora berriak.

Zeintzuk izan daitezke metafora berri horiek? Zaila da metafora berriak aurreratzea. Galderek, beraz, irekita jarraitzen dute: nola formulatu edo sintetizatu paradigma hauen ideiak gure etorkizunerako borrokarako txapela izan daitezken? Hau ez da, noski, arazo linguistiko edo erretoriko soila, diskurtsoaren eta praktikaren dialektikarekin egin beharreko bidea da. Aurrrera begira dugun erronka nagusietako bat dela esango nuke: ekin diezaio- gun, hortaz.

BIBLIOGRAFIA

Fisher, Mark (2016) Realismo capitalista. ¿No hay alternativa? Caja Negra: Ciudad Autónoma de Buenos Aires.

Gabilondo, Joseba (2017) Populismoaz. Subiranotasun globala eta euskal independentzia. Txalaparta. Tafalla.

Goikoetxea, Jule (2017) Demokraziaren pribatizazioa. Kapitalismo Globala, Europa eta Euskal Lurraldeak. Elkar. Donostia.

Gure esku dago (2016) Gogoetak elkarrekin.

Hinsley, Franciso (1986) Sovereignty, 2nd edition. Cambridge: Cambridge University Press. Lopez, Jaume (2017) El derecho a decidir. La vía catalana. Txalaparta. Tafalla.

Monzón, Telesforo (1980) El jarrón roto. Egin.

López, Jaume (2017) El derecho a decidir. La vía catalana. Txalaparta. Tafalla.

Odriozola, Onintza & Zabalo, Julen (2017) “Eredu aldaketa euskal nazionalismoan? Demokrazia kontzeptuaren garrantzia”. Jakin. 219. Zenbakia. Zelik, Raul (2017) La izquierda abertzale acertó. Txalaparta. Tafalla.

Zubiaga, Mario (2015) La decisión democrática como fundamento del derecho a decidir: el caso catalán. RIEV: Revista internacional de estudios vascos. Cuad., 11. 94-118.

Gorpuztu burujabetza feminista²

Marina SAGASTIZABAL

Bilgune Feministako kidea eta Soziologoa

Hurrengo lerroetan, Bilgune Feministako kideok burujabetzaz eta gorpuztaz landutako hainbat ideia eta proposamen bildu dira. Lerrook aditu zein arituen ekarpenak barnebiltzen dituzte, mugimenduan dauden ideiak dira, kolektiboan erein, hazi eta onduz joan direnak. Testu honek hausnarketarako eta esperimentaziorako gonbidapena luzatu nahi du, irakurleak bide zein eredu berriak probatzera animatuz.

ABIAPUNTUA

Bilgune Feministan, gure arbaso feministek egindako lanari esker, 15 urtez dihardugu burujabetzarantz eramango gaituen bide kolektiboa marrazten. 2002. urtean jaio ginen eta etorkizuneko Euskal Herri Feministarantz urratsak emateko Plan Estrategikoa deitu genuena martxan jarri genuen.

Urteak pasa ahala, gure inguruan hainbat aldaketa jazo dira. Hori dela eta, 2014. urtean euskal feminismoan dihardugunok egoeraren inguruko diagnostiko kolektiboa egin genuen egungo errealitatearen nondik-norakoak aztertzeke asmoz. Gainera, urte pare bat lehenago abiatutako estrategia feministaren berazterketa aintzat hartuta, urte berean, Ondarrun ospatutako Emakume Abertzaleon VII Topaketa Feministetan burujabetza erdiesteko trantsizio prozesua irudikatzen hasi ginen.

² Eskerrik asko Saioa Iraolari testuaren ganean egindako ekarpenengatik. Eskerrik asko Bilgune Feministari eztabaida, borroka, boteretze eta osatze kolektiborako ezinbesteko espazioa izateagatik.

Geroztik, hainbat ekimen jarri ditugu martxan bide hura ezaugarritzeko. Esaterako, gatazkak ikusarazi eta berauek lantzeko prozesuak abiatu, bizi-tza erdigunera ekartzeko proposamen eta eztabaidak mahaigaineratu, gure indarrak eta plazerak elkartrukatu, erakundetzeak feminismotik aztertu, gu geu osatzeko prozesu kolektiboetan murgildu, askotariko eremuetako feminismoak saretu eta eragiteko gune feminista abiatu,... Burujabetza marrazten hasi gara, hala ere, esan beharra dugu gure koloreez gain, marrazkian ere badirela bestelakoak, gu ez baikara artelan honetan protagonista bakarrak.

Etengabeko aldaketa prozesuetan murgildurik gaude. Kapitalismoaren eta patriarkatuaren fase berrian. Bizi ereduaren aldaketa sakonak ezaugarritzen dituen posmodernismoa dioten garaian, antza, dena ez ziur bilakatu da: identitateak, estrukturak, instituzioak,... Hala ere, gu gauza batzuekin ziur egon, bagaude: aldaketa horiek guztiak emakumeon³ kontrako erasoak eta orokorrean, herritarron kontrakoak direla. Kontserbadurismoa, fundamentalismo erlijiosoak eta sektore eskuindarren gorakada nabaria da Europako testuinguruan. Aberatsek gero eta gehiago metatu eta herri sektore zabalek gero eta gutxiago dugu. Eskubideen atzerakada larria jazo da azken urteotan, gainera, askotan gure segurtasunaren izenean: “lasai egon, Aitak babes-ten gaitu eta”. Horren adibide argia da Mozal Legearen (4/2015) onarpena edota abortuaren lege erreforma⁴ (11/2015), besteak beste. Neoliberalismoa ez da mehatxatua sentitzen, egun aukera bakartzat aurkezten baitu bere burua, batzuek ‘historia amaitu dela’ zioten legez.

Bagara, ordea, historia herriek eraiki behar dutela sinesten dugunok. Egun prozesu erreale bezain erradikalak martxan jarri behar ditugula uste dugunak, erradikala izatea arazoaren muinari heldzea baita. Prozesu honetan, beraz, feminismotik eraldaketarako aukerak ikusi ditugu, norabidetu beharrekoak. Historia guk geuk idatziz, feminismoaren sokari indartsu eutsi eta tiratzeko

3 Emakume kategoria erabiltzen jarraitzen dugu gure egungo errealitatean politikoki eragiteko oraindik baliagarria delakoan, nahiz eta sexu-genero sistemak markatzen duen binomioaz gaindi bizipen, ibilbide, ahalmen eta identitate anitzak ere bagaren (bollerak, trans...).

4 Erreforma honek emakume gazteen eskubideak urratzen ditu, 16 eta 17 urtekoek gurasoen baimena behar baitute abortatzeko. Hala ere, esan beharra dago PP alderdiko Alberto Gallardon-en hasierako proposamen ankerra askotariko feministon mobilizazioei esker atzera botatzea lortu zela

garaia dela uste dugu, eta erdigunean bizitzak eta pertsonak izango dituen jendarte antolaketa baterantz urratsak emateko prest gaude.

Feministok prest baikaude!

ZAURI ETA ORBAINAZ BETERIKO BIDEA

Eraldaketarako zantzuak non-nahi daude. 78ko erregimena kolokan dago, Kataluniako herritarrek mamboa dantzatzuz *status quo*a zalantzan jartzeko pausu erabakigarria hartu dute. Dena den, feministon ekarpenari aitortza egiteko, ziur aski, borrokatu beharko dute. Maria Merce Marçal idazle katalanak esan bezala, abertzaletasuna eta feminismoa gurutzatzen den eremua *inoren lurraldea da, es terra de ningú*, dena edo ezer ez gerta daitekeen espazioa, era guztietako aurreiritzi, topiko, mamu edota inertziaz ongarritutako lurra. Zorionez, inoren lurraldean bizi diren horiek desertu hura ureztatzen dabilta, finean, emakumeon ezinbesteko ekarpena mahai gainean jartzen ari dira (Gatamaula 2017).

Gure herrian ere halaxe egin izan dugu. Usurbilen bezalaxe, 2017an Kalera-kalera ekimenaren baitan, preso ohi emakumeok ‘Hemen Gaude’ ozen esan behar izan genuen, edota Valladolidera espetxe martxa feminista antolatu, gatazka hitza pluralean idatzi eta feminismoa inoren lurraldean gelditu ez dadin askok ari gara eragiten.

Hortaz, emakumeok Euskal Herriko askatasunaren bidean subjektu aktibo eta erabakior izan gara, eta larrutik ordaindu dugu. Urte luzez, gure gorputzetan, komunitatetan, lurraldean, gatazkek eta zapalkuntza ugarik gudan eragin zuzena izan dute. Nagusiki patriarkatuaren, gatazka politiko armatuaren zein klase gatazkaren ondorioz gure gorputzean samin, zauri nahiz orban ugari baititugu.

Hala eta guztiz ere, horiei guztiei gutxitan egin diegu jaramon militantzaren esparruan. Norberaren ardura indibiduala izan baita kalte horiek guztietatik sendatzea eta, gainera, ezkutuan egindako bide pertsonala izan da, zauriez hitz egiteak gure ahultasuna agerian utziko balu bezala. Gorka Zabala (2015) hitzak gure egiten ditugu tortura eremurik intimoenean apurtzen gaituela esaten duenean, baita isilpean eramaten den zauri gordina dela dionean. Horrexegatik, ezinbestekoa da bakoitzak bere prozesua eginez zauriak era indibidual zein kolektiboan osatzea.

Militantzian, sarri, arrazoia gorputzaren gainetik jarri dugu, arrazionala versus emozionala banaketa birproduzitu dugu eta gorputza bera ahaztu, gutxietsi dugu, gure pentsamenduen gordeleku hutsa bihurtuz. Helburu taktiko eta estrategikoak lortzeko tresna hutsala balitz bezala, gorputzak berak zituen zauri eta orbainei gehiegi erreparatu gabe.

Hori dela eta, feministok militantzia ereduari buruz luze eta sakon eztabai-datu dugu. Militantzia eredu klasiko eta zurrunetatik askatzen saiatu gara eta sarearen alde egin dugu, bilguneko kideon ekarpen politikoa askotarikoa dela ulertuz. Era berean, norbanakoa, taldea eta proiektua zaintzearen garrantziaz jabetuz joan gara eta geroztik, hiru eremu horien arteko ezinbesteko orekaren bila gabiltza (Zumalabe 2014).

Horrez gain, internazionalismo feminista praktikan jarriz kontziente egin gara arrazoia eta emozioaren arteko banaketak ze nolako pisua duen men-debaldeko ikusmoldean⁵, finean, gure ikusmoldean, eta horrek ze eragina duen gure praktika politikoan.

Frantzia eta Espainiaren gose inperialistak beste hainbat herrialdeen kolonizazio prozesuak ekarri zituen, hainbat aristokrata euskaldunen laguntzaz. Kolonizazio prozesua inperio horien periferietan hasi zen, hots, kanpo zen barne kolonizazioak egon ziren eta bigarren horretan gure herriko ohi-turak eta mundu ikuskerak ezabatzeari ekin zioten.

Esaterako, paganotzat jotzeagatik hainbat ohitura debekatu edota 'kristianizatu' zituzten. Inkisizioak berak *akelarre* bezala definitu zituen herritarrentzat ohikoak ziren praktikak. Zentzu horretan, gaur egun akelarreei buruz dugun irudia inkisidoreena da eta hainbat ikerketek seinlatu dute akelarre terminoak, besteak beste, "akerraren usainik ez duela", *alka* izeneko landaretik datorrela argudiatuz (Azurmendi 2012). Era berean, sorginkeria sarri emakumeekin lotu zela jakin badakigu batez ere, alargunekin, emakumeen autonomia agerian jartzen baitzuen (Nausia 2012).

Horrela, Silvia Federiciren (2010) ideiekin bat eginez, sorginen ehizaren aitzakiapean burututako sarraski eta feminizidio izugarria kapitalismoa garatzeko ezinbesteko tresna izan zela azpimarratu beharra dago. Sorginen ehi-

5 Atal honetan aipatutako ideiak nik neuk garatu ditut hainbat testuei esker, baina 2017ko udan Askapenak antolatutako Boliviako brigadatik ateratako irakaspenak dira gehienbat.

zaren helburua emakumeen gorputzen eta bizitzen gaineko kontrola ezarri eta sistema kapitalista eta patriarkarraren misedetara jartzea baitzen.

Ildo beretik, erlijio kristauak zein pentsamendu ilustratu arrazionalak mendeetan zehar errepikatu digu arrazoiak gorputza kontrolatzean ibiliko ginela bide (hetero)zuzenarantz. Arrazoa alde batetik eta bestetik, emozioa, sentimendua, soina, azken hura lizunkeriaren eta sen naturalen gordelekua balitz bezala. Frantziar Iraultzatik sortutako gizarte modernoaren arabera, hiritarrak arrazoa erabiltzeko gai direnak izango dira, hots, hiritar izaera gizonei bakarriki zegokien. Emakumeak, haatik, ernaltzeko gai diren heinean, senari eta emozioei lotuta daudela defendatuko da eta arrazoitze-ko gaitasunik ezean, ez dira hiritar gisa aitortuak izango.

Horregatik guztiagatik, burujabetzari ekiteko historiako liburuetan kontatu ez digutenari erreparatzea ezinbestekoa da, gure arbasoen jakintzak berreskuratuz eta arrazoa versus emozioa banaketa patriarkala hautsiz. Mounstroaren bihotzean bizi gara eta gu geu, gure esparru intimoan ere kolonizatuak eta zaurituak gaude.

Oraindik ere ehizaren zantzuak nabariak dira: feminizidioak, tortura sexista, bortxaketak, eskubide sexual eta erreproduktiboek ukazioak, infantilizazioa, emakumeak objektutzat hartzea... Gure gorputzak guduzelaiak izan dira eta badira. Hortaz, arrazoa eta gorputzaren arteko banaketa zentzugabea dela ulertu digu feministok: gure gorputzak politikoak dira eta sistemari aurre egiteko burujabetza gure baitan hasten dela ulertzea estrategikoa dela deritzogu.

BURUJABETZA FEMINISTA EZAUGARRITUZ

Bilgune Feministan burujabetza norabide bikoitza duen prozesu ireki gisa irudikatu dugu. Norabide bi, buru eta jabe:

Burua boteretzeko prozesu indibidual zein kolektiboari lotzen dugu, geure buruen jabe izateari, geure gorputzen jabe izateari, osatzeari, komunitatea sortu eta indartzeari.

Jabe izatea, erabakitzeke eskubideari lotzen dugu, ahalmen politikoa izateari, gure ahotsak entzun eta aitortzeari, eragiteko gaitasuna izateari.

Irudikatzen eta ibiltzen hasi garen prozesu honetan, ezinbestean boterearen aferarekin topo egin dugu. Boterea ez da norabide bakarrekoa, etengabe mugimenduan dagoen elementu gisara ulertzen baitugu. Hau da, boterea

ez dago bakarrik Estatu egituretan edo harreman ekonomikoetan, ez soilik goitik behera. Boterea nonahi dago, harreman guztietan zirkulatzen duen indarra da. Boterea ezin da suntsitu, bai, ordea, eraldatu eta haren kudeaketa kontzientea egin⁶.

Zapaldu/zapaltzaile eskematik harago, gu geu maila pertsonal zein kolektiboan boteretu gaitzkeela uste dugu, gainera, jardun politikoa horretarako ezinbesteko esparrua dela deritzogu. Horrez gain, herri boteretzea beharrezkoa zaigu herri honen trantsizioa, erakundetzea eta demokratizazioa gauzatzeko.

Batetik, boterea behar dugu elkarrekin aritzeko eta Euskal Herriaren burujabetza prozesuan indar kolektiboa eraikitzeko. Herritarrok botere politikoa eskuratzera eta prozesu politikoan parte-hartzera bideratua egongo den boterea dugu honakoa.

Bestetik, boterea behar dugu barrutik ekiteko, norberaren bizitza eta usadioak aldatzeko eta potentzial pertsonalei heltzeko. Norberaren ahalmenez eta diferentziaz jabetzeko, eta sormena erabilia, duintasuna lortzeko gaitasuna izatean datza, besteak beste.

Beraz, burujabetza prozesuak bide eman beharko liguke gorputzen jabetzatik hasita, kolektiboki boteretuta, komunitate, nazio eta herri gisa burujabe izatera. Aldiz, ez dugu uste ibilbide honen aitzindaritzaren subjektu soil eta bakarrari dagokionik: bidelagunez osatutako askotariko eginbide dela ulertzen baitugu. Euskal herritarren eskubideak, nahiak eta desioak kontutan hartuko dituen prozesu gisa irudikatzen dugu.

Horrexegatik, Euskal Estatuaren sorrera beste prozesu sozial, politiko, kultural, zein ekonomikoekin batera garatu behar dela diogu. Burujabetza, beraz, desiratzen dugun Euskal Herri feminista eraikitzeko norabidea da. Herri prozesu bati loturiko ibilbide dinamikoa da, askotariko eztabaida sozialaren ondorioz zehazten joango garena eta herri sektore zabalek sostengatuko dutena.

Horrez gain, burujabetza erdiesteko demokrazia muturreraino eramango dugu: justizia soziala eta parekidetasuna xede dugun heinean, zapalkuntza

6 Boteretze feministaren inguruan gehiago sakontzeko ikusi Amaia Zufiaren ‘Botere(tze)a feminismotik!’ (2016).

sistema ugariei aurre egin beharko diogu. Aldi berean, zapalkuntza horietatik guztietatik askatzeko bidean jasoko ditugun eraso, min eta ezinegonetatik sendatu eta osatu beharko gara, osatze bide kolektiboak martxan jarritz.

Finean, eremu sozio/ekonomikoan zein politikoan sistema kapitalista eta patriarkalari irtenbidea emango dion proiektuaz ari gara. Ez da bide makala aurrean duguna, beraz. Hori dela eta, norabide horretan lanean jartzeko proiektu feminista bat behar dugula argi dugu, hainbat erronka eta prozesu barnebiltzen dituena:

1. **Burujabetza feminista erdiesteko lidergo kolektibo feministak osatzea:** aliantza eta elkarlanean oinarrituz, feministok antolatu eta mintzakide politiko erreal eta indartsu izatea bilatzen duen herri prozesu horizontala, kolektibo eta komunala da. Dominazioan eta subordinazioan oinarritzen den botereari iskin egin eta harremanak eraldatuko dituen lidergo kolektibo feministak osatzea da gure erronka.
2. **Herritar guztientzako bizitza duina:** norabide bikoitza duen prozesua da hau, alde batetik, bizitzak erdigunera ekartzeko hausnarketa kolektiboak eta proposamen zehatzak garatzen joatea⁷ eta bestetik, urgentziazko eta muturreko prekarizazio egoerei aurre egitea, erresistentzia mekanismoak aktibatuz.
3. **Gatazken konponbidea:** askotariko indarkeriek sortutako gatazketatik konponbiderako urratsak ematea, batez ere, gatazka politiko armatua eta indarkeria sexista. Baina bada beste hainbat ere: murrizketak, arrazakeria, matxismoa, heterosexismoa, helduen nagusitza, eurozentrismoa, esklaboen salerosketa, kolonialismoa eta inperialismoa.
4. **Erakundetzea:** demokrazia pribatizatzen ari den honetan, herriak sortutako Estatua nahi dugu, jendartearen praktika multzoen isla, gure behar eta desirena. Halaber, nahi ditugun erakundetze prozesuak aztertu eta denon mesederako jardunbide komunak asmatu behar ditugu ikuspegi feministatik.

⁷ Bide honetan sakontzeko, Uzuri Aboitz-en artikulua gomendatzen dugu 'Burujabetza Feminista: burujabetza bizitzatik pentsatzeko saiakera bat' ale honetan bertan topatuko duzuen.

5. **Osatze feminista:** gure gogo-gorputzak osatzeaz gain, elikagaien (eta hauen iturburu diren haziak berreskuratu eta zaindu) eta lurra berreskuratu nahi ditugu. Guretzat sendatzea prozesu indibidual, kolektibo eta politikoa da. Horregatik, espazio desberdinetan osatze prozesu paraleloak bideratzea proposatzen dugu.

BURUJABETZAREN BIDEAN, OSATZE FEMINISTA SUSTATU

Gure gorputzak gure lehen lurralde dira, baina bigarrena, gure ingurumena da, gure bizi-tokia, eta hau ere pozoiz, toxikoz beteta dago. Jaten duguna, arnasten duguna usteltzen doa. Horregatik guztiagatik, era anitzetako transizio honetan, ezinbestekoa izango da Osatze feministari ekitea.

Osatze feministak gure mundu ikuskeraz hitz egiten digu, feminismotik pertsonak hauskorak, zaugarriak eta eko-dependienteak garelako ulertzen badugu, zergatik ez landu prozesu horiek kolektiboki eta politikoki? Gure zaugarritasunetik eta zaurietatik abiatuta, elkarrekin boteretu eta osatu gaitezkeela uste dugu.

Bide honetan, *Abya Yala*⁸-ko hainbat herrialdeko feministak bidelagun izan ditugu. Hauek estrategia politiko kosmikotzat jotzen dute osatze feminista edo 'sanazio feminista' euren hitzetan, eta prozesu pertsonalak era kolektiboan bideratu, lagundu eta sustatzen dituzte. Munduaren ikuskera holistikoa lantzen dute, osotasunaren ikuspegitik sendatu baino osatu egiten baikara. Osatze feministaren bidean, zapalkuntza ugarik gure gorputzetan eragin diguten mina identifikatuko dugu, pertsonaren dimentsio fisiko, emozional eta mental/espiritualaren arteko oreka landuko dugu. Horretarako, elikadura subiraizta ipartzat hartuta, lurrarekin harremanetan jarriko gara, eta arbasoen jakintzak (mundu ikuskera, errituak, sendabelarrak, aholkuak) errekuperatu eta landuko ditugu.

Gure ustez, taldeen baitan prozesu hauek elkarrekin egin beharko genituzke, Bilgune Feministan, gure gorputzetan pilatzen diren zauri, ondoez, gaitasunei arreta jarri eta osatzea da dugun erronka garrantzitsuenetarikoa, 'ni osatzean zu osatzen zarelako, eta zu osatzean ni osatzen naizelako'.

8 Jatorrizko herriek hala deitzen diote mendebaldean 'Hegoamerika' deitzen diogunari.

Boteretze feminista hiru eremutan garatu behar dela ulertzen dugu: eremu publikoan (lana, enplegua, partaidetza politiko, kultural zein sozialean), eremu pertsonalean (familia, lagunak, bikotea) eta eremu intimoan (norberak bere buru-gorputzekin duen harremanean). Eremu hauen guztien arteko oreka eta arreta eskaini nahi dugu, jardun politikoaren eremuan norbera, taldea eta proiektua zainduz.

Osatze feministaren bitartez, beraz, praxi politiko gorpuztuaren alde egiten dugu: gure gorputzaren bidez autoestimua landu, zaindu, osatu eta botereztzeko. Azken bi urte hauetan, gaiaren inguruan hausnartu eta honen gaineko praktika esperimentalak jarri ditugu martxan. Horrela, gu geu gure kolektiboan osatzeko baldintzak eta estrategiak abiatu ditugu, osatze prozesu pertsonal eta kolektiboak gertatzeko babes guneak, topaguneak eta egonaldiak burutuz, esaterako Donostian 2017ko urrian 'Borroka, bizi onez borborka' jardunaldiak antolatu genituen, baita hilabete berean Eginon asteburuko egonaldia ere.

Osatze edota sanazio prozesua, Euskal Herriko burujabetza feministan zehar-lerro bihurtu nahi dugu, gure jardun politikoan bertan bizitza erdigunean jartzeko ezinbesteko pausua baita.

ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK

Gatamaula (2017): Terra de ningún. Perspectives feministes sobre la independencia. Pollen: Bartzelona.

Gorka Zabala “Reconstruir la cerámica rota” (Gara, 2015eko urriaren 13an)

Joxemi Zumalabe (2014): Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantzia eta horizontaltasunaz hausnartzen. Eskuragarri: <http://joxemizumalabe.eus/liburuak/DHGE-1.pdf>

Mikel Azurmendi (2012): “A vueltas con el término Aquelarre”, RIEV Koadernoak, 9: 42-53

Amaia Nausia (2012): “Mujeres solas y brujería en la Navarra de los siglos XVI y XVII”, RIEV Koadernoak, 9: 216-239

Silvia Federici (2010): Caliban y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria. Eskuragarri: <https://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/Caliban%20y%20la%20bruja-TdS.pdf>

Amaia Zufia (2016): “Botere(tze)a Feminismotik!”, Irla bat izan ez dadin.

Angela Davisekin gogoeta egiten. Eskuragarri: http://bilgunefeminista.eus/eu/Berriak/20160720/Irla_bat_izan_iz_dadin..._Angela_Davisekin_gogoeta_egiten

Burujabetza, gorputza eta kultura

Arantza SANTESTEBAN PEREZ

Historialaria, zinemaegilea, feminista

Burujabetzaren, kulturaren eta gorputzaren inguruan hausnarketa egitea da artikulu honen asmoa. Horren harira, hiru esparru hauen arteko harreman eta intersekzioen azterketa kritiko bat egin nahi da. Politika konbentzionalean, kulturaren eta gorputzaren gaiak ikuspegi utilitaristatik aztertu izan dira maiz, prozesu politiko orokorretatik at baleude bezala; edo izatekotan, prozesu horiek bultzatzeko - kultura, batez ere- elementu soil balira bezala. Artikulu honen funtsa ikuspegi hori deseraikitzen saiatzea da eta burujabetza prozesuetan, kulturak eta gorputzak duten izaera intrintsekoa zein ahalmen politikoa aldarrikatzea.

Euskal Herrian iragan politikoa nostalgiaz begiratzen den unean bizi gara. Beti iruditzen zaigu Ez Dok Amairu edo Rock Radical Vasco-a izan zela gure loraldi kultural behinena; antzekoa gertatzen da politikan, Herri Batasuna bezalakorik ez omen da inoiz errepikatuko. Oro har, esparru guztietan esan daiteke, aurreko garaiekiko miresmena dagoela, “iraganean” gertatutakoa hobe izan zela. Hil aurretik Zygmunt Bauman-ek idatzi zuen saiakeran, “retrotopiaren” kontzeptua erabiltzen du: honen arabera, utopiak idealizatutako iragan batean proiektatuko lirateke eta ez etorkizunean. Euskal Herrian, badira horren zantzuak: garai batekoa borroka zen, oraingoa ez; garai batean giro kulturala zegoen, orain ez, eta antzera beste esparru askotan. Post-modernitatearen ezaugarrietako bat nostalgia zela esan zuen Fredric Jameson-ek eta baliteke erratuta ez egotea.

Baina zer egin? Nola antolatu daiteke sistema berri baten aldeko prozesu politiko bat gure begiradak eta pasioak iraganean jarrita daudenean? Marina Garcés-ek “Nueva ilustración radical” saiakeran esaten du iraganean ez dagoela egia gehiago edo gutxiagorik: garai bakoitzean baino ez daudela zapaltzen gaituen sineskortasunari aurre egiteko forma ezberdinak. Sinistu beharko dugu orduan, nostalgia hau patologia baten antzera itsasi zaigula

eta errealtatea eraldatzeko orainaldiaren kontzientzia beharrezkoa zaigula. Orain eta hemen, historiaren fase honetan, urgentziaz ulertu behar dugu jokoan dagoena: begiradak iraganeko denboran iltzaturik ez dugu izango gauden faseari erantzuteko modurik. Alabaina, kontzientzia hartze horren bidean, badira arrazionalak ez diren hainbat elementu; beste ezagutza mota batzuk, bizi dugun denbora honen ardura hartzeko beste modu batzuk. Horietako batzuk zerikusi handia dute kulturarekin eta gorputzarekin.

BURU-JABETZA ETA GORPUTZA

Gorputza, kultura eta prozesu politikoak -gurean burujabetza prozesua- batera doazela da barneratu beharreko lehenengo ikasgaia. Orain arteko parametro politikoek ez dituzte irakurri politika gorputzeko oso inportanteak izan diren esparruak. Tradizio marxistak egin bezala, sistema kritikatzeko eta honi alternatibak eskaintzeko aspektu jakin batzuk lehenetsi ditu eta beste batzuk bigarren mailako edo azpiko egin; hala, planteamendu teorikoek hartu dute indarra, ideien balioa bizipenen gainetik jarritz edota arrazoa beste ulermen modu batzuen gainetik (besteak beste, intuizioa edo gaitasun emozionalak). Horrekin guztiarekin, esperientzia politikoaren eraikuntza hierarkizatu eta zurruna egin da, sarritan, prozesu kolektiboetan hain garrantzitsuak diren aspektuak azpitik jarritz.

Hierarkizazio horretan, kultura eta gorputza bezalako esparruek funtzio ezberdinak bete dituzte. Batzuetan, burua -eta hortaz adimen intelektuala- izan da baliorik azpimarragarriena, kontutan hartu gabe, gorputzekin egiten diogula aurre sistemak eragiten digun zapalkuntzari: gaixotzen garela, gozaten dugula eta gure gorputzean dagoen informazioa eta gaitasunak ez direla nolanhikoak inguruneari egokitzeko. Gorputzean arretarik ez jartzeak -edota arreta mugatua jartzeak- deslotura eragin duela teorizazio politikoaren eta bizipen kontzientzearen artean, eta badela gorputza, orainaldiarekin eta bizi dugun denborarekin konektatzeko ezinbesteko modu bat. Ez da kasualitatea, burujabetza terminoak, hain zuzen ere, indarra jartzea *buruaren* jabeakuntzan, gorputza ahalduntzearen dimentsiotik kanpo utziz. Hala, intzidentzia eta ahalmen politikoa gaitasun intelektualari lotzen diogu, politika buruan ematen den prozesua bezala ulertuz.

Borrokaren ulermen hertsia horren parte ere bada bizi gaituen dominazio sistemaren kontra egiten dugunean, plazerra baino obligazioa eta karga sentitzea. Horrek dakarren guztiarekin. Ukatu gabe sistema oso eta oldarkor baten kontra egiteak dakarren mina, hondarretan geratu dira besteak beste,

plazerra, elkarrekin aritzeak eman dezakeen gozamina edota atsedenerako tarteen beharra. Mari Luz Estebanek gorputzaren teorian oinarrituz esaten du, politika eta aktibismoa fenomeno fisikoak direla. Zentzu horretan, *afektuen teorian* aditua den Jo Labanyi-ren hitzak ekartzen ditu lehen lerro-ra esateko, afektua ez dela sentimenduekin edo afektibitatearekin lotzen, bai ordea, kanpo munduak gure gorputz-sentsazioetan duen eraginarekin. Hala, inpaktu hau aurre-kontzientea litzateke eta hartara, gorputza izango litzateke inguratzen gaituenaren inguruko informazioa lehen jasotzen duena. Hori horrela ulertzeak, gorputzaren garrantziaz jabetzera garamatza eta dimentsio korporala, politikaren ulerkeraren baitan lehen planoan jartze-ra, ahalmen intelektualen pare.

Zentzu honetan, inportantea deritzot sistemak gure gorputz eta adimenean duen eragina fenomeno politiko bezala ulertzeari. Ez dira gutxiestekoak gariotan politikaren ulerkeran gorputzaren dimentsioa barneratu duten dinamikak. Adibide bat jartzearen (badira batzuk) elikadura burujabetzarena aipa liteke. Dimentsio ezberdinak biltzeko gai da aldarrikapen esparru hau: elikagaien ekoizpen prozedurek geopolitikaren esparruan dituzten eraginetatik hasita, kontsumo ereduaren inguruko kritikara eta honek gorputzaren osatzean dituen ondorioetara. Bestela esanda, ekonomia eredua, politika publikoen erregulazioa, tokiko ekonomia eta ekoizleen suspertzea, gure ingurunearekiko harremana zein ezagutza, eta horrek guztiak gure gorputzetan duen eragina; horietan guztietan du inpaktua elikadura burujabetzaren aldarrikapenak. Egia da borroka esparru honek ez duela lortu zentralitate politikorik baina burujabetza prozesuetan jendea boteretzeko ezinbesteko prozesuak izango liriteke. Era berean, mugimendu feministan Bilgune Feministak heldu dio gaiari, *osatzearen* inguruko prozedurak zabalduz. Hauen arabera, gure gorputzetan lurreratzen diren mota askotariko erasoak (indarkeria ekonomiko zein fisiko, prekaritatea, arrazakeria, hiper-teknologizazioa eta orohar sistemaren indarkeria sistemikoa) arintzeko eta osatzeko, gorputzaren kontzientzia eta burujabetza beharrezkoak liriteke. Hartara, elikaduraren bidez, ingurunearekiko harreman zuzenaren bidez eta orohar, jabetze korporalaren bidez, pertsonen boteretze logikak agertzen dira, edozein prozesu kolektiboan ezinbestekoa direnak. Burua zein gorputza, biak hala biak, kategoria dikotomiko bezala baino, elkar-eragiten duten errealitate gisa ulertzeak biderkatzen du subjektuon ahalmena sistema berri baten aldeko borrokan.

KULTURA: ONDAREA ETA SORKUNTZA

Kulturaren alorrarekin bestelako prozesuak bizi izan ditugu. Esan bezala, prozesu kulturalak prozesu politiko orokorretatik fenomeno bereizi bezala ulertu dira maiz. Akuila lana egiteko edo politika orokorraren gehigarri soilak izango balira bezala. Halere, ezin da ulertu abertzaletasun garaikidearen sorrera, 70 hamarkadan eman zen loraldi kulturala gabe eta alderantziz, ezin da euskal kulturaren egoera azaldu testuinguru politikoak izan zuen inpaktua kontutan hartu gabe. Prozesu horiek guztiak *continuum* politiko baten parte izan ziren. Anabasa politiko eta sozial bat. Edozein kasutan, gaur egun iraultza kultural berri baten beharra azpimarratzeak -modu isolatuan funtzionatuko balu bezala- aipatu kulturaren ulermen utilitarista indartzen du. Kulturaren funtzioa burujabetzaren aldeko hegemonia berriaren sorrera baino ez balitz bezala. Horrek guztiak, kulturak berezkoa duen ahalmen eraldatzailea mugatzen du neurri handi batean.

Baina zein da hain aipatua den kulturaren ahalmena orduan? Nola funtzionatu dezakete dinamika kulturek burujabetza prozesuetan? Badira kultura bereizi daitezkeen bi esparru: alde batetik, **ondarea** dugu. *Ondare kulturala* deiturikoa da eta horrek komunitate baten auto-afirmazioarako potentziala dauka, besteak beste. Hemen kokatzen dira iraganeko elementuak eta baita kultur adierazpen biziak ere. Edozein komunitatean aurkitzen ditugu, batzuetan prozesu kontzienteen bidez bultzatu dira; beste batzuetan, modu espontaneoan hasi eta egonkortzen joan diren erreferentzia kolektiboak izan dira. Aurretik aipatu diren Ez Dok Amairu edota RRV izan litezke kultur *ondare* honen parte; hauetatik edaten dute gaur egungo musikari askok, hortaz, kultur prozesu hauek *ondare* izanik, gaur egungo dinamiketan eragiteko gaitasuna dute. Inauteriak, euskal dantzak, bertsolaritza eta beste hainbeste, iraganetik datozen elementuak dira, komunitate baten kultur bereizgarriak, eta lortu dute, modu batean edo bestean, orainaldian gaurkotasunez formulatzea.

Kultura espazio mugagabea da, definiezin, baina badakigu komunitate batek dituen barne zein kanpo esanahiak artikulatzeko moduek osatzen dutela. Kultur ondarea, esanahi hauek kontsentsu minimo bat lortu dutenean egituratzen dela esan daiteke. Hala, euskal kulturaren ondarea izango litzaiteke, komunitate horrek, bere buruaz duen ideia -zehatza zein abstraktua- dinamika kulturalen bidez adierazten duenean. Esan bezala, horretarako kontsentsua beharrezkoa da; egon beharra dago jende kopuru bat gai dena adierazpen horien esanahia deskodifikatzeko. Bertsolaritza komunitate jakin baten adierazpen kulturala dela esateko, bada giza talde bat horretan

ados egon behar duena. Horrela, euskal kulturaz jende guztiak ez du iritzi berdinik baina adostasun multzo horiek eta elkarren arteko harremanek osatzen dute kultur-testuingurua.

Aipatu den ondare kulturala ezinbestekoa da praktika auto-afirmaziozko bezala, baina bestelako prozesuekin elkarlotzen ez bada bere arriskuak izan ditzake. Kultura, komunitate baten identitatea berresteko esparru soil bezala hartzen denean, bestelako aukera batzuk desaktibatzeneko arriskua egon daiteke, komunitate hori dinamika folklorikoen atezuan utziz. Hor egon daitezke, kultura modu *retrotopikoan* eta *erretrospektiboan* ikustearen ajeak: garai batean izan ginena eguneratzen baino ez dakien kultur-komunitatea izateko arriskua, hain zuzen ere. Bere burua dagokion denboran eta etorkizunean proiektatzeko arazoak dituena.

Aurreko lerroetan esan bezala, kulturaren bereizi beharreko bigarren esparrua, kultur *sorkuntzarena* izango litzateke, edo beste era batera esanda, artearena. Praktika hauen oinarrian sormena dago: askotariko adierazpen artistikoak. Ondarea praktika auto-afirmaziokoa bada, sorkuntzaren bidez, jartzen dira zalantzan normatibitateak, afirmazio arruntak eta zabaltzen da posible denaren eremua. *Ondarea* eta *sorkuntza* maiz elkar-loturik doaz, ez dira prozesu berezituak. Halare, *sorkuntza* beti ez dago kontsentsuaren dinamikaren baitan: zerbait sortu daiteke (poema bat, bertso bat, musika estilo bat, pelikula bat edota eskultura bat) aurre-adostasunik gabekoa eta maiz kontsentsu orokorren kontra egiten duena, edo bertan lekurik ez duena. Ondarearen parte diren dinamika askok eta askok, bere jatorrian *sorkuntza* ez-ohikoak ziren, inork ulertzen edo onartzen ez zituenak, baina baieztapen dinamika ezberdinen ondorioz mugimendu bihurtu direnak. Esaten da (eta badira azterketa sakon eta zehatzak hori modu ezin hobean azaltzen dutenak) hasierako RRV-a mesfidati ikusten zutela askok, ez zelako sobera euskalduna batzuentzako, apurtzaileegia zelako beste batzuentzako,... baina egon zen prozesu kontziente bat mugimendu hori guztia kausa baten alde jartzeko eta bide horretan kontsentsu dinamiken baitan garatu zen.

Sorkuntza baina, ez da beti auto-afirmaziokoa. Askotan kontrakoa da eta hori da berezkoa duen indarra. Komunitate baten arau eta normak interpelatzeko indarra izan dezake, tradizio orokortua zalantzan uztekoa. Gaur egun sormen dinamika indartsuak daude, zeinak erakusten digute normatiboa den horretatik badirela bestelako aukerak: gure iruditegia ez dela dena zuria, edo ez dela dena maskulinoa edota ez dela dena rurala...

Mugimendu abertzaleetan, maiz, ondareari eman zaio garrantzirik handiena, sorkuntzaren balioa bigarren maila batean utziz. Are gehiago, praktika auto-afirmaziokoekin bat etorri ez zitezkeen hainbat sormen modu edo proposamen estetiko mesfidati ikusi izan dira. Ez da artikulu honen asmoa hori epaitu edota baloratzea. Alabaina, kulturaren zentzu utilitaristak dituen albo kalteak aztertu nahi dira, izan ere, auto-erreferentzia etengabea bilatzen duen komunitateak orainaldiarekin eta bizi duen momentuarekin distantzia handitzeko arriskua izan dezake. 2017ko udan Berriako elkarrizketa batean (Udako serieak) musikan arituak diren hiru lagunei galdetzen zitzaion Euskal Herriko musikaren panoramaz. Oro har, aipatzen zuten badela obsesio bat Euskal Herrian Ez Dok Amairu berri baten beharra aldarrikatzen denean. Bide beretik esaten zuten, zentzu ideologiko-identitario batean eskatu ohi dela mugimendu horren bertsio gaurkotu bat; alabaina, ez omen da berriro gertatuko garai diferenteak direlako eta gaurko panorama kulturala beste klabe batzuetan antolatzen delako. Inoiz baino musika estilo, talde eta belaunaldi gehiago dago euskal musikaren eszenan elkarrekin jotzen, alabaina, ez dago hori garai bateko terminoetan irakurtzerik. Esanahi berrien garaian gaude, nostalgiatik irakurtzen badira deszifra ezinak direnak; gaur egun ulermen modu kritiko berriak behar ditugu, gure garaia konektatzeko, bizi dugun unea ulertzeko.

BURUJABETZA, GORPUTZA ETA KULTURA

Esparru mugagabeak izanik ere, artikulu honetan zehar mahai gaineratu nahi izan da burujabetza prozesuetan, beharrezkoa dela eremu hauen artean ematen diren intersekzioak ulertzea. Gaur egun politika, garai modernoetan ez bezala, intersekzioetan ematen baita, neurri handi batean. Garai bateko egituratzea eta balio sistema aldatuz doa, eta politika egiteko prozedurak ere eraldaketa fasean daude. Ikuspegi *retrotopikoa* nagusitu zaigu eta kostatzen zaigu etorkizuneko utopiekin lotzea gure herria. Etsipenaren kontra, ikuspegi kritikoa berreskuratzea ezinbestekoa da. Sistemaren kritika, norbanakoaren kritika.

Marina Garces-ek esaten du egun, dena dakigula baina ezin dugula ezer egin. Agian gehiegi esatea da, oraindik zerbait egin dezakegulako. Alabaina, ezinbestekoa da bizi dugun garaiarekiko amildegirik ez sortzea. Etorkizunik gabeko belaunaldien etsipen sentimenduaren kontra, politika osagai ezberdinen bidez artikulatzea. Gure begiradak zabaltzea. Horretan, gure mendeko borroka berrietan, burujabetza prozesuek kontutan hartu behar

dituzte orain arte bigarren mailan geratu diren elementuak; gorputza eta kultura horietako batzuk baino ez dira.

ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK

BAUMAN, ZYGMUNT. Retrotopía. Paidós Ibérica, 2017.

ESTEBAN, MARI LUZ. Feminismoa eta politikaren eraldaketak. Susa, 2017.

GARCÉS, MARINA. Nueva ilustración radical. Anagrama, 2017.

HAINBAT EGILE. ¿Qué es el pueblo?. Casus Belli, 2014.

BESTELAKOAK

UDAKO SERIEAK: Egungo musikaren erradiografia bat. Berria, 2017.

https://www.berria.eus/udako_serieak/egungo_euskal_musikaren_erradiografia_bat/bigarrena.php

OSATZE FEMINISTA. Edurne Epelderi elkarrizketa. Hik hasi, 2018.

http://hikhasi.eus/Albistegia/20180115/Edur_Epelde_Pagola:_Zaintza_in-darkeria_anitzei_aurre__hartzeko_botika_da

SARASOLA, BEÑAT. Kultura: beti biharko uzten den eztabaida. Mikelazuloko hitzaldia, 2016.

<http://burujabetzarenhariak.eus/wp-content/uploads/2016/02/3-OTS-27-Beñat-Sarasola.pdf>

Ekonomia Herrigilea: Herrigintza ikuspegietatik ekonomia artikulatzeko esperientziak

Igor ORTEGA

Mondaragon Unibertsitaterako irakaslea eta ikerlea

PARADOXA BAT ABIAPUNTU

Gero eta sektore zabalagoek partekatzen duten irudipena da egun nagusi den garapen ereduak agorpen zantzuak erakusten dituela. Bai, zentzuzko garapen eredu baten ardatz pertsonen garapena eta herritarren ongizatea kokatzen baldin baditugu, bederen. Gizartearen begiratu azkar batek, ongizatearen bilakaeraren pertzepzioari dagokionez, anbibalentzia bizipen moduko bat erakusten digu: atsegin ditugun oparotasun material eta teknologikoak ongizatearen bilakaeraren eten eta galera bizipenekin nahasirik datoz. Izan ere, neoliberalismoaren hamarkadek mesfidantza-arrakalak eragin dituzte egun nagusi dugun garapen ereduarekiko. Interesgarriena da, diskurtso sofistikatu eta teoria iraultzaile borobilik erabiltzeko ohiturarik ez dutenen artean ere, nola halako ikuspegi partekatu baten aztarnak aurki daitezkeela:

- Egun nagusi den garapen ereduak ez dirudi gehiago ongizatearen sinonimoa. Ongizate-egituren erasanak eta bizi-baldintzen prekarizazioaren hedapenak sektore zabalei eragiten die eta, modu batera zein bestera, gizartearen eremu oro blaitzen ditu. Bizi-maila hazkorren gizarte-espektatiba kamusturik agertzen da; lana, zaintza eta bizitza pertsonalaren arteko orekak prekarioagoak dira; eta egun norbanakoek beren bizi proiektua duintasunez eta autonomiaz garatu ahal izateko baldintza okerragoak sumatzen dira.

- Ez dirudi ere segurtasun iturri. Aitzitik, arrisku eragile dela gero eta zabalduago dagoen irudipena da. Arrisku klimatikoa, gizarte kohesio galera, elikaduraren kutsaduraren gaineko zalantzak, osasunarekiko kezka, langabezi arriskua, bizi egoeren ezegonkortasuna, besteak beste, nagusi den garapen ereduarekin korrelazioan hautematen ditugu.
- Eta, demokraziaren ikuspegitik ere, egungo gizarte-baldintzen baitan, prozesu politiko eta ekonomikoak herritarron ikuspegitik arautzeko ahalmena galdu dugu. Gaur irudipen orokortua da esparru ekonomiko eta politikoa herritarron kontroletik ihesi eta beren kasara dabiltzala. Egungo egoera asko laburbilduz aipa genezake logika ekonomiko eta politikoa pertsonen eta herritarren garapenaren helburutik deskonexioan dabiltzala. Prozesu paralelo bik eragiten dute norabide horretan: Batetik, politikak dimentsio ekonomikoaren gaineko kontrola galdu egin du; bestetik, egitura politikoa herritarren beharrezanetatik deskonexioan aurkitzen da.

Hipotesia baieztatuko balitz, hau da, gizarte sektore zabalek bizi hobe baten espektatibak talkan sumatzen dituztela egungo garapen ereduaren bilakaerarekin, esangura handiko testuinguruan aurkituko ginatke. Kapitalismoaren zilegitasunaren oinarrian aurkitzen den liberalismo ekonomikoaren promesa sinesgarritasuna galtzen ari den testuinguru historikoan geundeke: interes indibidualaren eta lehiakortasunaren efizientzian oin harturik, hazkunde ekonomikoaren bidez gero eta sektore zabalagoen bizi maila hazkorra bermatu egingo zenaren promesa fededun gero eta gutxiago topatzen dituen unean.

Eta, hortaz, hipotesiaren alde baikorrenekin jarraituz, gizarte sektore gero eta zabalagoek adieraziko lukete egun bizi hobe baten proiektua islatuko dituzten proposamenekiko prestutasun handiagoa. Baina hementxe gure garaiotako paradoxa: merkatuaren logikaren etengabeko hedapenaren araberako garatzen den sistemak eta kapitalaren metaketa bere baitan helburu bilakaturik pertsonak nahierara erabiltzen dituen garapen ereduak agorpen zantzuak erakusten baditu ere, ez dira alternatiba sinesgarrikeri ageri ortzi mugan. Aitzitik, krisiaren kudeaketa kapitalista, kutsu neoliberalerako politiketan sakonduz egiten dena, gailentzen ari da.

Handik eta hemendik entzuten dugun baieztapena da izaera estrukturalerako joerak ezaugarri ezberdinak dituen aro berri batean murgildu gaituztela. Irudi luke ezkerak (gurea barne) arazoak dituela aro aldaketaren testuinguruan kokatzeko.

GALDERA BERRIAK, INERTZIA ZAHARRAK

Egungo ezkerren gizarte-egitasmoaren oinarrietako askok Bigarren Mundu Gerraostean garatu zen gizarte ereduaren dute iturria. Ordukoak dira, besteak beste, Ongizate Estatua, bere baitan bilduriko nazio-estatuaren ekonomia eredu autozentratua, lanaldi oso eta orokorreko gizarte ikuspegia, bizi-maila orokortuko gizartea, edota eskubide-eremu gero eta zabalagoen bermatzailea izango den estatu publiko ahalguztidunaren nozioa.

Gizarte oinarri horren gainean eraikiko da gerora ezkerren baitan hegemonikoa bilakatuko den garapen sozialaren edo gizarte-emantzipazioaren paradigma nagusia. Paradigma honek Estatua du ardatz: gero eta eskubide gehiagoren eta zabalagoen bermatzailea izango den Estatua da emantzipazio bidearen eragilea edo agenterik nagusiena. Ezkerreko indarrei (alderdi eta sindikatuak batik bat) dagokie presioa egitea Estatuak aldarrikapenak bere egin eta garatu ditzan, edota langileen interesen aldeko alderdiak auzatzea estatu-administrazioaren kudeaketa guneetara.

Ikuspegi honen baitan, ezkerren ezaugarritze berezko bat nagusituko da, Antxon Mendizabal lagunak, argiki, ezker-fordista gisa definitu zuena. Ezkerren ikuspegi honen ezaugarri nagusiak dira bere kutsu ekonomizista (gizarte- eta produkzio-harremanen nolakotasunaren aurretik, lan-baldintza eta kontsumo-mailaren gaineko aldarrikapenak hartzen baitute arreta gehien), logika distributiboa (aberastasuna sortzeko faktoreez gutxi arduratu eta aberastasunaren distribuzio mekanismoez kezkatzen delako), izaera delegatibo-ordezkatzailea (autogestioa oinarri duten bestelako ikuspegiaren aldean, Estatu-administrazioaren gain uzten duelako unean uneko eskubideen garapena eta zerbitzuen hornikuntza), eta hein handi batean baita patriarkala ere (gizon-langile eta emakume-etxeakoandre binomioan oinarritu zituelako zaintzaren erronkak).

Kontua da 80. hamarkada osteko gizarte-baldintzek paradigma hau euskarritzen zuten oinarriak zalantzan jarriko dituztela. Globalizazioak batetik, neoliberalismoak bestetik, eta gizarte-joera berriek azkenik, Estatu publikoaren nozio hori ardatz nagusi duten emantzipazio bideen efikazia murriztuko dituzte. Azkar eta arin bada ere aipamenerik bat merezi dute ondorengo hauek:

- Ekonomiaren globalizazioak Estatu-nazioen oinarrien gainean eraikitzen zen ekonomia autozentratuaren eredu hankaz gora jartzen du. Estatuaren ahalmen arautzaileak eremu ekonomikoan mugatuagoak

dira. Gurean ere, kapitala estu errotzeko ezintasuna (deslokalizazioa, ebazio fiskala), edo agertoki globalizatuan Euskal Herriko egitura produktiboak aberastasun ekonomikoa sortzeko erakutsi dezakeen ahalmenaren higadura aintzat hartu beharreko aldagaiak dira. Estatu-administrazioaren izaera distributiboa ahulagoa da honela.

- Politika neoliberalak eragin eta antolamendu ahalmenaz husturik agertzen den Estatu murriztagoa bilatzen dute. Baina, onartu beharko genuke ere, Estatu-administrazioari hertsiki lotzen zaion publikotasunaren nozioaren krisian izaera desberdineko joerak eragiten dutela. Ongizate-Estatuaren logika administratibo-burokratikoak larri egokitzen dira egungo gizarte konplexuen ezaugarrietara. Batetik, kudeatzeko zailak diren izaera konplexuko eskari eta arazo sozial berriak azalarazi dira arazo eta behar “tradizionalagoen” aldean. Bestetik, gainera, Ongizate Estatuak zailagoa du egun, jendarte konplexuago, individualizatuago, eta sakabanatuago batetik eratortzen diren eskari askotarikoei eta aspirazio hazkorrei erantzuteko. Publikotasunaren gaineko ezkerreko kritika eta proposamen berritzaileen faltan, ikuspegi neoliberalak kapitalizatzen dituzte herritarrek publikotasunarekiko adierazten dituzten konfiantza galera bizipenak.
- Herritarren ongizate espektatibak asetzeko, publikotasunaren paradigma honek ezinbestekoak ditu ekonomiaren eta estatu-administrazioaren etengabeko hazkuntza. Desafio ekologikoak erakusten digu, baina, hazkunde etengabearen paradigmaren mugak. Honek guztiak, garapen eredu zentzuzko baterako trantsizio logikak gure jardunaren erdigunean txertatzea eskatzen du: Ekoefizientzia (gutxiagorekin gehiago egitea); irabazien metaketaren ordez, gizarte-ongizatearen zerbitzura egongo den zientzia teknologia eredu arduratsua, gizarte lokalizatuagoa eta ekonomia sustraituagoa, baliabide endogenoen optimizazio handiagoa eta, ziurrenik, gure bizi-maila doituz eta soilduz, gutxiagorekin hobe bizitzea posible dela frogatzea.

Gure gizartearen imaginarioan Estatu (egitura publiko-administratiboa) da ongizatearen bideratzailea eta bermatzailea. Aipatzen ari garenez, estatu-administrazioari loturiko paradigma publikoaren mugak azalarazten diren ziklo historikoan aurki gaitzke. Arazoa da gizarte-baldintzek oso bestelako agertoki batera jaurti bagaituzte ere, alternatiba proposamenak paradigma horri loturik jarraitzen dutela. Ondorioz, eskubide murrizketen aurreko

erantzun dinamiken eskema da gailentzen ari dena. Baina, pertsonen garapena eta herritarren ongizatea ardatz izango duen gizarte humanoagoaren eta jasangarriagoaren eraikuntza prozesuak blokeaturik dirudite.

ALDAGAI BERRIAK EMANTZIPAZIOAREN EKUAZIOAN

Gizarte antolamendua euskarritzeko unean Merkatuaren eta Estatuaren logikak izan dira aro ezberdinetan dimentsio hegemonikoak. Bi dimentsio hegemoniko hauen alboan, eta hainbatetan gutxietsiak izan baldin bada ere, gizarte modernoetan Estatuaren logikatik eta Merkatuaren logikatik at kokatzen diren bestelako harreman-egiturak biziraun dute: Komunitate-logiken irizpideei erantzuten dieten harreman-egiturak.

Estatuaren logikaren aldean (hiritartasun eskubide unibertsalen eremua, hiritarren eta estatu-egituren arteko lotura hierarkiko eta subordinatua, zerbitzu emaile-hartzaile harremana), Komunitate-logikak herritarren arteko lotura horizontaletatik, elkartasun eta elkar laguntza jarreretatik, eta lankidetzeta oinarrietatik eratortzen diren instituzionalizazio prozesuei egiten die erreferentzia. Herri ekimena, auto-eraketa eta gizartearen auto-antolakuntza prozesuen berezko dimentsioa da.

Gurean, euskal eremuan, Komunitate-logiken bizi indarra bereziki nabarmena izan da. 60. hamarkadan, diktadurapean, eta administrazio publiko propiorik ez genuen garaian, auto-eraketa eta auto-antolakuntza prozesuen bidez erantzun zitzaien gure herriak zituen oinarritzko hainbat beharria. Nazio eraikuntza, eraldaketa soziala eta erakundeen demokratizazio bideak txirikordatuz hainbat esperientzia berritzaile abiatuko dira Euskal Herrian. Orduko herri bulkadaren adierazle esanguratsuak ditugu Ikastolen mugimendua, euskalgintzaren antolakunde sare trinkoa eta, nola ez, nazioartean ikur bilakatu den kooperatiben mugimendua.

Gure herriko bereizgarria da Komunitate-logikatik eratortzen diren esperientziek erakusten duten dimentsioa eta zabalkundea. Bazterrekoa izan barik, gizartearen erdiguneko prozesu ugari logika honen arabera egituratu dira gurean, produkzio, finantza eta kontsumo eremuetatik hasiz, hezkuntzaren etapa guztietatik igaroz, eta kultura, euskara eta aisialdiko esperientzia berritzailetaraino iritsiz. Merkatu pribatua eta Estatu-administrazio publikoaren alboan identitate propioa duen bestelako sektore bat dagoela nabarmena da gurean. Kooperatibak dira ziurrenik sektore honen esperientziarik esanguratsuenak, baina izaera juridiko horrek ez du sektore honen

aberastasuna, eta beraz, dimentsio osoa irudikatzen laguntzen. Izan ere, kooperatiben alboan, ekonomia sozial eta solidarioko bestelako esperientziak, elkarteak, ekimen komunitarioak, bokazio sozialez ala militantez garatu diren enpresa egitasmoak, besteak beste, partekatzen dituzte jarraian aipatuko ditugun hainbat ezaugarri. Horregatik, Herrigintzaren kontzeptua nahiago dugu eremu zabalago hori identifikatzeko.

Herrigintza dimentsio honen ezaugarri bereizgarriak dira:

- A. Estatu-administrazio edo kapital-entitateekiko autonomia. Nabarmenagoa da hau kooperatiben kasuan langile-bazkideen jabetzan eta erabaki-ahalmenean oinarritzen diren heinean.
- B. Erakundeen eta egitasmoen bokazio sozial eta publikoa: Batzuk enpresa-egitura izanagatik eta bideragarri izateko errentagarritasun baldintzak bete behar izanagatik, kapital metaketa ez da jardueraren helburua. Aitzitik, egitasmo sozial eta eraldatzaileak dituzte helburu.
- C. Demokratizazio irizpideen arabera antolatzen da erakundeen barne jarduna: pertsonen ahalduntzea, parte hartzea eta kooperazio jarrerak errazten dituzten antolakuntza ereduak garatzen dituzte.

Ezker tradizionalak hainbestetan erabili ohi duen publiko-pribatu dikotomiak Herrigintza sektorearen aitortza eza dakar. Baina honen aurrean, gero eta ozenagoak dira Herrigintzaren autonomia, demokrazia eta bokazio soziala Estatu-administrazioaren eremutik haratago hedatzen den publikotasunaren nozio zabalagoa dakartela dioten ahotsak.

Gogoetaren une honetan gure buruei egin beharreko galdera argia da, hortaz: Merkatuaren logikaren hegemoniak eta Estatu-publikoaren paradigmen mugak ezaugarrituriko aro honetan ba al dute Herrigintzaren dimentsio ezberdinek zer edo zer eskaintzerik?

Herrigintzaren dimentsioaren baitan kokatzen diren egitasmoen bertuteak, gehiago edo gutxiago, ezagunak dira: ekonomia lokalizatua eta sustraituagoa, enpresen eta lanpostuen erresilientzia handiagoa, gizartearekiko inplikazioa, pertsonen garapenerako baliabide gehiagoren eskaintza, joera espekulatiboen aurrean ekonomia produktiborako joera, kapital sozial eta konfiantza sareen ehundura, gizarte inklusibo baterako dinamikak... Denak

ala denak gako garrantzitsuak dira gizarte justua eta kohesionatua lortzeko eta, bide batez, herri-egitura autozentratu eta burujabeago bat oinarritzeko.

Baina Herrigintzaren dimentsioak egungo testuinguruan badu ekarpen sakonagoa egiteko. Garapen eredu humanoagoaren eta jasangarriaren norabidean trantsizio dinamikak marrazten dizkigu. Herrigintzaren eta autoeraketaren paradigma oinarri duten esperientziek ekonomia eta gizarte eredu berri horren ernamuin biziak dira. Izan daitekeen hori bideragarria eta sinesgarria egiten duten adibide egingarriak. Eta, hortaz, praktikara gonbidatzen duten esperientzia erakargarriak.

Kooperatibismoak, oro har, egun bizi duen loraldia zerikusia du honekin guztiarekin. Beren bizi eta lan proiektuen burujabe izan nahi duen belau-naldi berri bat hurbiltzen ari da Herrigintzaren ikuspegi hauetara. Ezker tradizionalaren ikuspegi ekonomizista eta murriztaren aldean, gainera, pertsonaren izaera konplexu eta integralaren aldarrikapena sumatzen da mugimendu honetan. Helburu eta bideek bat etorri behar dutela jakitun, alternatiben eraikuntzan harreman sozialen nolakotasunak garrantzi berezia hartzen du begirada honetan: Hierarkikoak, menpekoak, indibidualistak, lehiakorrak diren harreman-egiturak irauli eta demokratikoak, horizontalagoak, lankidetzakoak eta solidarioak izango dituzten proiektuetan aritzeko gogoia sumatzen da.

Bide batez, Herrigintza logikak hobeto ezkontzen dira bere autonomiaren galerarekiko jeloskor eta eraldaketa narratiba potoloekiko mesfidatia den, baina bizi hobe baten aspirazioari uko egin ez dion subjektu indibidualizatuaren ikuspegiekin. Izan ere, Herrigintzaren bidea jende arruntaren eraldaketa gogo lasaiaren paradigma ere bada: (adibidez) Goiener energia kooperatiban bazkidetuta, etxeko argia soilik pizteko ekintzarekin, pertsonak oinarri izango dituen garapen eredu jasangarri baterako norabidean beren ekarpena egiten duten pertsonen paradigma.

PARADOXARI INTERBIDEAK BILATZEN

Indarririk lukete Herrigintza eta Komunitate logika indarberrietuek, eskala handituz eta gizarte esparru zabalagoak irabaziz, pertsonen garapena eta herritarren ongizatea ardatz izango duen garapen eredu humanoago eta ja-sangarria eraikitzeko? Galderak ñabardura batzuk beharrezkoak ditu. Izan ere, hipotesi gisa bada ere, ez dirudi zentzuzkoa gizarte antolamendu berri baten oinarria Herrigintza dimentsioaren erabateko autonomiaren gainean eraikitzea. Berezko indarguneak izugarri garaturik ere, Merkatuaren hege-moniaren aldera lerrokaturik dagoen eszenatoki ekonomiko eta politikoa nekez eraldatuko da Herrigintza esperientzien ekinbide autonomoaren bidez. Estatu egitura eta Herrigintzaren dimentsioen arteko elkar ekintza sinergikotik etorriko dira aterabideak.

Baina, argudiatzen saiatu garenez, Komunitate-logikatik eratoritzen diren Herrigintzaren esperientziek bide interesgarriak eskaintzen dituzte egun ezkerak, oro har, bizi duen ezintasun egoerari aurre egin dezan. Herrigin-tzaren dimentsioa antolakundeen izaera juridiko bati baino, herri-egitasmo eta balore ikuspegi batzuei erantzuten dion eremua da. Eta balio ikuspegi hauek (demokrazia, gizarte oreka eta justizia soziala, elkartasuna,...) nagu-si dira zalantzarik gabe euskal jendardean, izan kooperatiba bateko kide, funtzio publiko langile, ala kapital enpresa bateko behargin. Balio hauek egingarri egingo dituzten ereduaren eraikuntza, ikusgarritasuna, bideraga-rritasuna, eta sinesgarritasuna dira, ziurrenik, gizarte sektore zabalen era-karpen-indarra areagotzeko herri honetako ezkerak indartu behar dituen prozesu-gakoetako batzuk. Ekonomia herrigilea, edo herrigintza ikuspegie-tatik ekonomia artikulatzeko esperientziak; eta Instituziogintza herrigilea, herrigintza ikuspegietatik instituzioen kudeaketa egiteko aukerak ezinbes-teko bideak dira urrats horretan.

ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK

AZKARRAGA, J. (2007): “Nor bere patroi. Arrasateko kooperatibistak aro globalaren aurrean, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

BECH, U. (2000): “Un nuevo mundo feliz. La precariedad del trabajo en la era de la globalización”, Paidós, Barcelona.

BLANCO, I. y GOMÁ, R. (2002): “Gobiernos locales y redes participativas”, Ariel, Barcelona.

DE SOUSA SANTOS, B. (2011): “El milenio huérfano. Ensayos para una nueva cultura política”, Trotta, Madrid.

FONT, J. (2001): “Ciudadanos y decisiones públicas”, Ariel, Barcelona.

GARCÍA, J. (2012): “Adiós capitalismo”, Icaria, Barcelona.

GARCIA, O. (2006): “La participación en la empresa. Perspectiva histórica, perspectiva crítica y perspectiva cooperativa”, Lanki, Eskoriatza.

GIPUZKOA FORU ALDUNDIA (2009): “Participación ciudadana institucional. Comprender, practicar, impulsar la participación”, Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia.

LAVILLE, J. y GARCÍA, J. (2009): “Crisis capitalista y economía solidaria. Una economía que emerge como alternativa real”, Icaria, Barcelona.

MARCHIONI, M. (1989): “Planificación social y organización de la comunidad”, Editorial Popular, Madrid.

MENDIZABAL, A. (1998): “Globalización: perspectivas desde Euskal Herria”, Hiru, Hondarribia.

SUBIRATS, J. (2011): “Otra sociedad ¿Otra política?”, Icaria, Barcelona.

SUBIRATS, J. y RENDUELES, C. (2016): “Los (bienes) comunes. ¿Oportunidad o espejismo?”, Icaria, Barcelona.

Burujabetza eraikitzen: Publikoa, Komuna, Komunitarioa, Kooperatiboa.

Amaia OLEAGA

Ekonomilaria, Talaios koop eta Olatukoopeko kidea

Ongietorriak garai interesgarrietara esaten zigun Zizekek, konbultsio geopolitiko uneetan bizitzeko zalantzazko zortea izan dugunoi. Historia dialektikoki aztertuz gero, ordea, egonkortasuna konbultsio eta konbultsio arteko tentsioak metatzen diren denbora tartea da. Beraz, egonkortasun aroak indar korrelazio eta bizi-baldintza material batzuek denboran sostengatu diren tartea besterik ez dira, gizarte segmentu bakoitzaren onura edo kalterako.

Hain zuzen ere, egonkortasunaren kontzeptua da eliteek edonolako aldaketa sozial, politiko eta ekonomikoren aurka erabiltzen duten lubaki diskurtsiboa, gaur egun ere. Edo alderantziz, ordenari eusteko beharrezkoak diren aldaketak erraz egin izan dira egonkortasunaren izenean, Espainiako Konstituzioko 135. artikulua erreformarekin edo gastu publikoa murrizteko Aurrekontu Egonkortasun legearekin gertatu zen bezala. Enpresek Catalunyaatik alde egitea ere egonkortasun ekonomiko beharrari zor omen zaio.

Konbultsioetan zabaltzen diren pitzaduretan jasotzen ditugun seinaleei adi eraiki behar dira estrategia eraldatzaileak. Horretarako ezinbestekoa da ofentsiba egiturak eta praktikak barneratuta izatea, unean-unean aurkezten diren aukerak identifikatu eta norabide egokian bultzatzeko. Neoliberalismoaren eta “austeritate espantsiboaren” biharamunek utzi diguten agertokian, instituzionalitate berriak sortu edota zaharrak berrasmatzeak paretako pitzadura zabaltzen lagun diezaguke. Krisi anizkoitzak elkarri gainjartzen zaizkion eta elkar-elikatzen duten koiuntura honetan, beste testuinguru eta aldaketa une historikoetan bezala, jendartearen zaurgarritasunak osatzen dute izaera kolektiboen aurrean autoeraketarako energia. Hau da, norbanakoen ahuleziak dira erresistentzia eta emantzipazio estrategia kolektiboei itxura emango dietenak.

Baieztapen hauek lehen begiratuan orakulu edo teorizazio plano batean geratzearen itxura har badezakete ere, errealitate materialetan errotuta daude. Azaldu nahi dugunerako adibiderik aproposena, beharbada, diskurtso politikotik kanpo denbora luzez izan dugun kontzeptuen zentraltasun berria da: komuna.

Komunaren ulerkera ezberdinak izan daitezkeenez, bereziki bi landuko dira lerro hauetan: komun historikoak eta komun berriak esaten diegunak.

KOMUN HISTORIKOAK

Ekonomia instituzional berriaren ikuspegitik, zenbait ezaugarri betetzen dituzten elementuak dira: baliabide mugatuak izan ohi dira eta norbanako erabiltzaile gehigarriek baliabidearen ustiapenerako elkarren artean “lehiatu” egin beharra izaten dute edo, beste era batera esateko, erabilera indibiduala mugarik gabe erabiliz, gainustiakuntzarako, narriadurarako eta baliabidea amaitzeko arriskua dago. Arrisku honi komunaren tragedia deitu izan zaio.

Aipamen berezia merezi du komun gehienek desagerpena historikoki baliabidearen kudeaketaren desegokitasunagatik ez izanak. Komunaren tragediarik izan bada, horiek kapital metaketaren zerbitzura jartzeko egindako eraso militar eta politikoak izan dira. Komunaren desagerpenak historiako prozesu ekonomiko eta sozial planifikatuen emaitza izan dira. Komunaren eta komunitateen zaintza eta sostengua genero dimentsio handiko esparruak izanik, Silvia Federicik bikain aztertu zituen komunaren desagerpenaren, lurren eta emakumeen gorputzen kolonizazioaren eta jatorrizko kapital metaketaren prozesu sakonki traumatikoak, baita euskal Herrian ere.

Horrez gain, erabiltzaile komunitateentzako baliabidearen erabilera hertsiki lotuta dago komunitatearen bizitza edo jarduera zentral bati eustearekin, hau da, behar edo dependentzia baten inguruan eraikitako antolaketak dira. Lehen aipatu dugun dimentsio kolektiboko zaurgarritasuna. Baliabide komun hauen adibiderik hurbilena, beharbada, bazka lurra dira. Jabetza komun aitortzaz gain, kudeaketa komunerako antolaketa sozial iraunkorrrak eraiki dituzten baliabideak dira, pribatizazio edo publikazio subjektu izandakoak, kasu askotan. Euskal Herrian paradoxikoa dirudi herri lurren erabilera tragediara kondenatzea begirada sakonagorik gabe. Izan ere, gaurdaino iraun duen oparotasun kolektibo adibide dira.

Ezaugarri horiek betetzen dituzten baliabideen adibide asko etor dakizkiguke burua: ura, basoak, arrain populazioak, zenbait lur... Baliabide natural berriztagarri eta ez berriztagarriak izan dira tradizionalki eskema honetan kokatu direnak. Ingurumen problematika hartzen ari den dimentsioa dela eta, pentsamendu ekonomiko eta politiko hegemonikotik kanpo utzi eta “gaindituzat” eman den kontzeptua berriro ere mahai gainean jarri da, hein handi batean Elinor Ostrom Ekonomiako Nobel Saridunak egindako lanari esker.

KOMUN BERRIAK

Historikoki jabetza eta kudeaketa komunari lotzen zaizkion baliabideez gain, badira baldintza horiek betetzen dituzten elementu asko, etengabe agertzen jarraitzen dutenak. Esaterako, Interneterako sarbide azpiegitura bat kolektiboki finantzatu, eraiki eta erabiltzen dituzten komunitateak, edota software libre garatzaile komunitateak. Komun berri hauen kasuan, baliabidearen izaera komuna bera maiz zalantzan jartzen da. Hau da, izaera komuna duen berezko baliabiderik ez dagoela, kudeaketa publiko, pribatu edo komuna duten baliabideak baizik.

Eztabaida teorikoetan sartu gabe, historikoki maiz komuna kontzeptua baliabideari berari deitzeko erabili izan den arren, ulerkera zabalago honek instituzionalitate berriak eraiki eta eraldaketarako espazioa zabaltzen du egitura instituzional eta kudeaketa komunaren logikan eraikitako egitura sozial-instituzionalak esploratze aldera.

Baliabide komunaren ikuspegi hertsia gotik ere, Ostromen ekarpenaren araberak, gakoak ez da baliabide komunalen izaera eta horrek berez ekarriko lukeen tragedia gaindiezina. Baliabide komunak, ekosistemen kasuan horiek beharrezko dituzten mugen baitan ustiatzeko kudeaketa ereduak datza gakoak. Beste baliabideei ere logika bera aplikatu dakieke, baliabideen kudeaketa aiposena bilatzeko sistema baliagarri bezala.

Pentsamendu neoliberalak, eta ezkerren zati batek, pribatu-publiko ardatzetan kokatu du jabetza eta kudeaketaren eztabaida. Binomio horren araberak publikotasuna Estatuari zuzenki atxikitzen zaio, jendartearen interes kolektiboen berme eta ordezkari goren bezala, baina ikuspegi erredukzionista honek emantzipaziorako eta eraldaketarako kasuistika asko bazter uzten ditu.

Planteamendua errotik erredukzionista bada ere, Estatuaren subiranotasuna eta eragiteko gaitasuna etengabe ezbaian ikusten dugun honetan, Estatuak ez da (ez da inoiz izan) langile klasearen interesak defendatzeko tresna nahikoa. Koiuntura hau Estaturik gabeko nazioentzat bereziki kezagarria da, ez badugu antizipazio politikoz jokatzeko. Izan ere, ibilbide gero eta murriztagoa bada ere, burujabetza espazio propio hori ere ez dugu.

Historikoki Estatu propioaren beharra aldarrikatu dugunok Estatuaren erabilgarritasuna zalantzan jartzeak kontraesankorra badirudi ere, koiuntura irakurtzen jakinez gero, subiranotza irekian sakontzeko aukera ematen digu. Estatuak ez bada euskal langile klasearen eta hau osatzen duten emakumeen, migranteen eta sistemak atzean uzten dituen kolektiboen interesak defendatzeko nahikoa, subiranotza eta proiektu politikoaren motorra birkokatu egin behar da, ukigarri egin behar da. Erabakigune propio, erradikalki demokratiko eta burujabearen beharra esperientziatik eraikitzea igaro gaitezke, bizitzea merezi duten bizitzeko gainean erabakitzen jarraitzeko Euskal Estatu propioa behar dugula agerian utziz. Era berean, eraiki nahi dugun Estatu horren nolakotasunak egiteko era konkretuetara ekartzea ahalbidetuko luke.

Birkokapen honetan paper garrantzitsua joka dezake komunaren kontzeptua zentroan jartzeak. Izan ere, bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren baliabide naturalez gain, ez al dira komunak eta ezinbestekoak zaintza edo hiri eta herrietako espazioak? Are gehiago, desagertzera kondenatutako ereduak izateko, internet sarea eta software librearen sorrerak erakutsi zuten komuna espontaneoki, behin eta berriro agertzen zen egitura dela. Esan genezake egonkortasun harrigarria erakutsi duela, egonkortasun hegemonikoa ez izan arren. Eppur si muove. Komunitateek biziraupenerako eraikitako egitura, praktika eta kudeaketa eredu bakun bezala irudikatzen, mundua eraldatu duten teknologien zutabe izatera igarotzeak, berriro ere egitura hauen inguruko interesa berpiztu behar du ezkerrean.

EUSKAL HERRIA KOMUNEAN

Euskal Herrian ere praktika komunitarioen historia oparoa da. Gaurdaino iraun duen auzolanaren kontzeptuan oinarrituta, garai bateko praktika esparrua gaintu eta euskalgintzara, autogestiora eta beste hamaika eratako herrigintza inizatibataraz ekartzen jakin da. Bereiziki interesgarriak dira auzolanaren ideian inspiratuta loratu diren eta bide ezberdinak aztertzen

loratu diren elikadura, energia eta teknologia subiranotzako esperientziak. Auzolana eta autoeraketa konbinatuz kontsumo agroekologiko elkarte eta kooperatibak, haien arteko interkooperazio sareak, garatzaile komunitateak, azpiegitura teknologiko komunitarioetarako sareak, energia berriztagarrien merkaturatze kooperatibak etab. Agertu dira azken hamarkadetan. Behar indibidual bezala barneratzen iritsi garenak merkatuaren logikan asebate ordez, beharrak asetzeko komunitateak sortu dira. Logika berean kokatzen dira aurrerantzean loratzen jarraituko dutela diruditen beste eratako kontsumo eta lan elkartuko kooperatibak, zaintza komunitateak, etxebizitza kooperatiboak...

Iniziatiba hartu beharra duela ulertzen duen gizarte batean bizi garen arren, datorren hamarkadarako erronka zirrargarria da ezker soberanistarena: nola elikatu estrategia komunitario eta kooperatibo guzti hauek, subiranotza nazionalaren ideiarekin lerratu ditzakeen diskurtsoa eraikitzeko? Nola uztartu egitasmo burujabe hauen sustapena eta publikotasunaren defentsa elkar topatzen duten espazioetan? Non kokatzen da publikotasunaren izaera komunitatearen interesen delegatutako ordezkari bezala, autoeraketaren aldeko apustuan? Zein espazio politiko dira egun erabilgarriak aliantza publiko-komunitario-kooperatiboentzako? Zeintzuk asmatu behar dira?

Instituzionalitate berriak, edo zaharberrituak, berrasmatuak behar dira. Galdera konplexu guzti horientzako erantzun sinpleegia, zalantzarik gabe. Beharbada erantzunak topatzen hasteko interesgarria litzateke gure tokiko komunitate hurbiletan dauden behar kolektiboak identifikatzea, materialenetatik hasita. Beharren subjektuek autoeraketarako dituzten aukerak aztertu eta horretarako premiazkoak diren baliabideak eskaintzeko tokiko herri eragileek eta instituzioek eskaini ditzaketen aukeren analisia egitea.

Autoeraketa eta eraldaketa prozesua aurrera eramango duen komunitatea dagoenean, instituzioek egitura hauek sortzeko bitartekoak nahiz helburuak betetzen direla egiaztatzeko jarraipen mekanismoak jar ditzakete. Zenbait kasutan, ordea, komunitateek ez dute ekimena autonomiaz mar txan jartzeko baldintzarik. Kasu horietan interesgarria litzateke publikoki behar horiek asetzearen zerbitzura jar daitezken baliabideak eskaintzea, planean bertan komunitateen inplikazio eta ahalduntzerako programa progresiboak ezarri.

Bide honetan esperientzia biziki interesgarriak izaten ari dira etxebizitza komunitarioen egitasmoak. Alde batetik, erabileraren lagapenean oinarritutako etxebizitza kooperatiben eredia legoke, *La Borda* kooperatibaren

eredua. Eredu honetan ekimen osoa komunitateak hartzen du bere gain, instituzio publikoen inplikazioa behar sozial bati ekimen autonomoz erantzungo dion komunitatearen eskakizun konkretuak negoziatuz, esaterako lur publikoen erabilera. Instituzio publikoen inplikazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta unibertsalizagarriagoa izango da etxebizitza kooperatiba eredua.

Beste aldetik, Orereta-Errenteriako Udalak bere jabetzako eraikinean gazte emantzipaziorako etxebizitza komunitarioa proiektua legoke. Ekimen publikotik abiatutako proiektua izanik, etxebizitza egokitzea bera gazteen parte-hartze eta inplikazio sakoneko programa batekin bateratu da. Hala, etxebizitzaren kudeaketa eraginkorki autonomia izan dadila ahalbidetuko duen ahalduzko prozesu sendoa jarri du martxan.

AURRERABIDEAK

Publiko-komunitario-kooperatiboan hibridazio espazioen sorreran sakontzen hasteko lehen urrats bat publikotasunaren kontzeptzio estatal soiletik urruntzea da. Estrategia hauetarako askoz ere interesgarriagoak dira lurraldeetan eta proiektu konkretuetan hurbiletik eragiteko gaitasuna duten instituzioak, espazio komunitarioekin lanean aritzeko eragile naturalagoak baitira. Apustu estrategiko horretarako klabe eta proposamen batzuk, orain arte esandakoa laburbiltzeko, honakoak izan litezke:

- Publiko-estatal ulerkera automatikoa disoziatzeko aukerak esploratu ahal izateko, **publikotasunaren dimentsio kolektiboa sustatu behar da, kolektibotasun material eta esperientzialak** eraiki behar dira. Jaiotzez mugatuak diren parte-hartze kanal burokratizatuak irekitzetik, erabakiak hartzeko espazio hibridoak irekitzera igarotzeko bidean has gintezke.
- Zorrak eta horren inguruko mekanismoek, ezkerreko gobernuen esku egonagatik, herrien subiranotasuna jokoan kanpo uzteko gaitasuna dute. Hortaz, ezinbestekoa da finantzen gaineko kontrol publikoaren inguruan eztabaida sakona egitea. Egungo marko legalak, Estatuaren edo beste maila bateko instituzio publikoek kontrolatutako finantza-jarduera asko zailtzen du. Ez ezinezkoa delako, instituzioen konposizio politikoak ez dituelako horretarako beharrezkoak diren adostasunak ahalbidetzen baizik. Ondorioz, aurrezki kolektiboa demokratikoki eta gardentasunez kudeatzen dituzten finantza etikoetako instituzioekin

elkarlanean, **finantza publikoen ulerkera berriak** lantzen has gintezke. Jabetza estataleko banku publikoaren figuratik harago, mundu oso bat existitzen da. Finantzak komunitatearen elkartasun tresna bezala gorpuzteko plaza bezala pentsatzen eta diseinatzen hasi behar gara.

- **Komun berriak izan daitezkeen horiek detektatu eta horien aldeko apustuak sustatzea:** zaintza lanak kolektibizatzekeo estrategia komunitario eta kooperatiboak; herrigintza proiektuak; kontsumo sare, elkarre eta kooperatibak; egun jabetza jabetza publiko/estatalekoak diren elementu komunen kudeaketa (espazioak, ibaiak, urak, lurak, eraikinak...); komunikaziorako azpiegitura teknologikoen sare komunitario eta kooperatiboak... **Aliantza publiko-komunitarioen espazio interesgarriak elikatzearen aldeko apustuak** komunitateen burujabetza materializatzekeo baliabideak eskaintzea lezarke. Halako esperientziak existitzen ez direnean behar sozialak detektatu eta politika publikoen bitartez hornitu edo zerbitzua eskaintzetik hasita, komunitateak ahalduntzekeo estrategiak sustatzea ere interesgarria izan daiteke, kasuan kasu. Behar hauek asetzeak jarduera ekonomiko edo profesionalen beharra duenean, parte hartze demokratikoa sustatuko duten kooperatiba eredu ezberdinak sustatu litezke, edota gure beharren araberrako kooperatiba formak pentsatzen hasi.

Goiz da oraindik honek emango duena ikusteko, baina uzta hori biziki ezberdina izango da albotik begira geratuz gero edo indar eraldatzailez eragiten badiegu. Praktika ezerosoa da. Ezezagunera bultzatzen gaitu; kontraesanik gabeko diskurtso eroso baina galtzailetik ateratzen gaitu, eta horrek liburu teorikoetan kontenplatu gabeko agertokietara garamatza. (Ber) asmatzeke dagoen bide batean murgildu beharko gara, indar korrelazioak mugitzen ari dira, baina ezin uka garai interesgarria badela, bereziki gure alde jartzen asmatzen badugu.

IRAKURGAI INTERESGARRI BATZUK

Ostrom, E.; *Governing the Commons: The Evolution of Institutions for Collective Action*, Cambridge University Press, 1990.

Ostrom, E.; Dolsak, N., *The Commons in the New Millennium. Challenges and Adaptation*, MIT Press, 2003.

Angus, I.; *The myth of the tragedy of the commons*, *Socialist Voice* (2008-08-24).

Garrett, Hardin.; *The Tragedy of the Commons*, *Science*, 162. bol, 3859 zkia (1968-12-13), 1243-1248 orriak.

Federici, S.; *Calibán y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria, Traficantes de Sueños*, 2004.

Bromley, D.; *The Commons, Common Property, and Environmental Policy*; *Environmental and Resource Economics*, 2; (1992) 1-17 orriak.

Kostakis V. eta Stavroulakis, S.; *La parodia de los Comunes; En Defensa del Software Libre*, 2; (2014-02-01 jatorrizkoa, 2017-11-23 azken egokitzapenak).

Etzi.pm hedabide digitaleko egiletza kolektiboa, *Komunismo banatua* - <http://etzi.pm/komunismo-banatua/>

Irasuegi, B. eta Julio, G.; *Herrigintza bizia komun berriak sortzeko*- <http://etzi.pm/2017/04/herrigintza-bizia-komun-berriak-sortzeko/>

Porro, A.; *Zer dira ekonomia eraldatzaileak?* - <http://etzi.pm/2016/11/zer-dira-ekonomia-eraldatzaileak/>

Burujabetza Feminista: Burujabetza eguneroko jardunetik pentsatzeko saiakera bat

Uzuri ABOITIZ HIDALGO

Bilgune Feminista, ikertzailea Gizarte Antropologian (Universitat de Barcelona)

Irakurtzen ari zaren saiakera hau burujabetzaren azterketa feminista bat da. Burujabetza eguneroko jardunetik gauzatzea proposatzen du. Funtsean, egunerokoan burujabe izateak zer esan nahi duen eta egungo testuinguru kapitalistan horretarako aukerarik badagoen pentsatzeko saiakera da. Berez, ziurgabetasun erradikaleko garai honetan burujabetza kokatzeko eta haren esanahia berritzeko apustu intelektual eta politiko bat da. Nola eta nondik hitz egin burujabetzaz gure bizitzen kontrola bera ere nekez har dezakegun garai honetan? Bizi-proiektu bat amesteko, erabakitzeko eta zehazteko ezintasun kolektiboak burujabetza birpentsatzera eta burujabetzatik proposamen politiko bat lantzera eraman gaitu.

Saiakera hau Bilgune Feminista⁹ osatzen dugunok burujabetzaren inguruan egin dugun eztabaidaren argazki bat da, baina Bilguneri dagokion esparrutik harago doa, beste eztabaidagune batzuetako gogoetak eta ahotsak ere jaso baititugu. Eraldaketa sozialerako gogoetak aurkituko dituzu orri hauetan. Hau ez da errezeta bat, gauzak alda ditzakegula sinetsirik egindako proposamen bat baizik. Errelato komun bat sortzea eta aldaketa norabidetzea helburu duen burujabetzaren esanahi berritu bat aurkituko duzu hemen.

9 Nire esker ona adierazi nahi diet Bilgune Feministako kideei -batez ere Amaia Zufiari eta Saioa Iraolari-, euren konfiantzagatik eta iruzkinengatik. Bilgune Feministako kideen ahotsak hemen jasota egotea espero dut, azken batean beraiek izan baitira proposamen politikoaren egileak. Eskerrik asko Amaia Perez Orozcori, testua irakurtzeagatik eta hausnartzen laguntzeagatik.

Aldaketa abian da dagoeneko, baina ez guk nahi genukeen norabidean. Fantasia kapitalista pitzatzen ari da. Aurrerabidea, berdintasuna eta ongizatearen promesarekin limurtu nahi gintuen kapitalismo batetik, gutxi batzuentzako lekua besterik ez dagoela argi eta garbi aitortzen duen kapitalismo batera pasatu gara. Are gehiago, nagusitzen ari den kapitalismoak bere aldaerarik autoritarioenean, kontserbadoreenean eta arrazistenean berpizten du burujabetza grina. Horregatik, kapitalismoaren norabide berri honen aurrean, gutziz premiazkoa da eztabaidatzea zer-nolako burujabetza nahi dugun, gaur egun burujabe izateak zer esan nahi duen eta ea burujabetza lorgarria den gaur egungo marko kapitalistan. Feminismoaren ikuspegitik eta irakaspenetatik ekingo diogu erronka horri.

ZERI EGIN BEHAR DIOGU AURRE?

Kapitalismoak izan dituen beste krisi handietan gertatu zen bezalaxe, kapitalaren metatze prozesuak berrezarri nahi dituzten egiturazko prozesuak bizi ditugu orain ere. Gure ikuspegitik, bi mugimendu mota egin behar ditu kapitalismoak berregituratu ahal izateko: hedatze mugimendua eta uzkurtze mugimendua.

Lehenik, kapitalismoaren hedatze mugimendua zer den azalduko dugu. Batetik, kapitala bizitzaren gero eta dimentsio gehiago merkantilizatzen saiatzen dela ikusten dugu, beti ere eremu horiek diru bihurtu ahal badira. Bizitzaren merkantilizazio horren ondorioz, gizarte sektore askori gero eta zailagoa zaie bizibideak modu iraunkorrean eskuratzea. Gure bizitzen merkantilizazioa orain arte pentsaezina zitzaigun mailara iritsi da. Funtsen, prezioa jarri diegu sabelei, zahartzaro duinei edo ibaiei. Bestetik, kapitalaren helburua gero eta eremu geografiko gehiagotara hedatzea da. Horretarako, lehenik eta behin, populazioak eta lurraldeak bere interesen arabera egituratzeari ekin dio. Merkataritzaren eta inbertsioen arloko itun berriak dira horretarako tresna, haien xedea bizitzaren dimentsioak maila globalean eta maila globaletik merkantilizatzea baita. Ingeniaritza juridiko horrek korporazioen boterea indartzen du eta inpunitate osoz aritzen da. Merkataritza eta inbertsio itunek lurraldeak berrantolatzen dituzte eta gure erabakitzeo ahalmena mugatzen dute.

Kapitalak sistema berregituratzeko egin behar duen beste mugimendua uzkurtzea da. Sistema hedatzen jarraitu ahal izateko, kapitalak ekonomia-
ren esfera subalterno eta inbisibilizatuen beharra dauka. Hau da, bizibideen

kontrol iraunkorra zailtzen duen neurrian, *beste*a ahal duen moduan aurrera ateratzeaz arduratuko den norbait behar du. Azterketa feminista batetik, ikusten duguna da, bizitza sostengatzeko ardura feminizatu egiten dela ez ondorio gisa, baizik eta kapitalaren metatze prozesuak berrezarri ahal izateko estrategia politiko-ekonomiko gisa. Bizitzak aurrera ateratzearen ardura nagusia familiaren eta konkretuki emakumearen esku geratzen ari da berriz ere, eta hori kapitalismoak sistema patriarkalarekin artikulatzeko duen gaitasunaren ondorioa da. Beste era batera esanda, eredu ekonomiko hau hedatzen jarraitu ahal izateko, sistema kapitalista honek beharrezkoa du genero desberdinkeria sortzea eta birsortzea. Sistema hau kapitalista eta heteropatriarkala da. Kapitalismoa eta heteropatriarkatua elkar elikatzen dute.

Burujabetza proposamen politiko emantzipatzailea izatea nahi badugu, bi mugimendu horien arteko harremanak zer dakarren ulertu behar dugu. Kapitalistek beren irabaziak handitzeko egiten dutenaren eta pertsonen bizimodua ateratzeko egiten dutenaren arteko artikulazioa ulertu behar dugu. Edo, beste era batera esanda, saiatu behar gara ulertzen nola lortzen dugun bizitza aurrera ateratzea jendartearen ardatz material eta ideologikoa kapitalaren logikak zehazten duen honetan. Izan ere, mundua mugitzen duen kontraesana bi mugimendu horien artikulazioan datza. Hori ulertzeko, ezinbestekoa zaigu konturatzeko bizitza ez dugula aurrera ateratzen lana/kapitala harremanen bidez soilik. Jendea era askotara moldatzen da bizimodua ateratzeko. Guk zera proposatzen dugu: bizitza aurrera ateratzeko ezartzen ditugun gainerako harremanak ere, jendarte kapitalisten erreproduzio sozialaren funtsezko osagai gisa azaldu behar direla. Eta beraz, bizimodua ateratzea nola lortzen dugun ulertzeko, kontuan izan behar dugula zein den pertsona edo talde sozial horren produkzio eta erreproduzio posizioen arteko harremana. Azken batean, posizio produktibo eta erreproduktiboen artikulazio hori da guk sistema kapitalista batean klasetzat jotzen duguna.¹⁰

10 Besteak beste, klasearen kontzeptualizazio hori honako testu honetan aurki daiteke: Susana Narotzky (2004). *Antropología Económica nuevas tendencias*. Melusina. Bartzelona. 303-304 or.

ZER DAGO JOKOAN?

Kapitalismoa ikuspegi horretatik aztertzeak aukera ematen digu ikusteko une honetan jokoan dagoena ez direla enpleguaren esplotazioari lotutako aferak soilik. Ikuspegi horrek argi erakusten digu hainbat harreman eta instituziok sostengatzen dutela jendarte kapitalistaren erreprodukzioa. Horregatik esaten dugu dagoeneko ez daukala zentzurik erresistentzia soldatapeko lanaren eremutik soilik antolatzeak. Lan produktiboa eta lan erreproduktiboa bereizteak ere ez gaitu oso urrutira eramaten. Bizitza sostengatzen duten prozesu ekonomikoez era artikulatuan pentsatzera ausartu behar gara. Zein da kapitalismoan eskaintzen zaigun bizitza eredua? Eta zertan oinarritzen da bizitza hori? Kapitalismoak nola menderatzen gaituen ulertzeko, bizitzaz hitz egin behar dugu.¹¹

Beraz, ados bagaude bizitza bera dela jokoan dagoena, bizitzatik antolatu beharko dugu erresistentzia. Hala egiten badugu, borroka bera demokratizatuko dugu, guztiok subjektu politiko bihurtzen baikara eta bizitzako espazio eta dimentsio guztiak erresistentzia eremuak bilakatzen baitira: espazio kolektiboak nahiz intimoak, fabrikak eta etxeak, ugazaba-langile harremanak nahiz gurasotasun, laguntasun zein sexu edo maitasun harremanak, bizitza gure gudu zelaia dela ulertuz.

Erresistentzia bizitzatik antolatzeak, ez garamatza letra larriz idatzitako Bizitzaz hausnartzera. Eguneroko bizitzan, jardunean jarri behar dugu arreta. Elkar entzun eta aitortuz. Eguneroko prekaritateetan aurkitu behar dugu elkar: argindarraren faktura puztuan, aukeratu gabeko bakardadean, iristen ez diren bizileku baimenetan, ordaindu ere ezin dugun 30 metro karratuko pisuan, susmo txarrez jaten ditugun elikagaietan, aukeratu gabeko gurasotasunean edo bi hilabeterako enpleguan.

Bizitzaren aldeko apustu erradikala egitea ez da letra larriz idatzitako bizitza aldarrikatzea, baizik eta posizio bat hartzea bizitza duinaren mugen inguruan. Bizitzaren politizazioa norberaren zaurgarritasunaz jabetzea eta duintasun kolektiboaren atalase berriak ezartzeko jardunari ekitea baino ez da.¹²

¹¹ Kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazkan sakontzeko baliagarria izan daiteke Amaia Perez Orozco (2014) *Subversión feminista de la economía*. Traficantes de sueños. Madril. 105-116 or.

¹² Espai en Blanc kolektiboak sakonki birpentsatu du bizitzaren eta politikaren arteko erlazioa: Espai en Blanc (2006) *Vida y Política. Materiales para la subversión de la vida*. Bellaterra. 1-2 zk.

Funtsean esaten ari garena da kapitalismoa ez dela soilik sistema ekonomiko bat, baizik eta batez ere bizimodu bat dela, sistema eta iruditegi kultural oso bat. Gure nahiak, asmoak, ametsak eta desirak kapitalismoari lotuta daude. Beraz, bizitzatik erresistitzea sistema ekonomiko neoliberalaren baliokak eta arrazionaltasuna iraultzea ere bada. Azken muturreraino eraman behar dugu feminismoetatik aspalditik esaten ari garena, hau da, pertsona la dena politikoa dela. Eta, horretarako, zalantzan jarri behar dugu guztiguztia.

BURUJABETZA FEMINISTAREN APUSTUA

Aurrera jarraitu aurretik, orain arte aipatu ditugun ikaskuntza feministak laburbilduko ditugu, proposamen politiko bat findu ahal izateko. Lehenik, ados bagaude sistema kapitalistak hedatzen jarraitu ahal izateko, genero desberdinkeriak sortu eta birsortu behar dituela, argi izango dugu borroka antikapitalista orok sistemaren ardatz heteropatriarkala hartu beharko duela jomugatzat. Bigarrenik, ados bagaude bizitza ez dugula aurrera ateratzen lana/kapitala harremanak ezarriz soilik, argi izango dugu ezartzen ditugun gainerako harremanak ere ezbaian ipini eta irabazi beharrekoak direla. Pertsona guztiok bizitzaren dimentsio guztietan erresistitu dezakegu. Beraz, burujabetzaren proposamen eraldatzailea egin nahi badugu, eguneroko bizitzatik eraiki beharko dugu, are gehiago bizitzaren dimentsio guztiak merkantilizatzeko ofentsiba orokor bat pairatzen ari garen garai honetan.

Gu irakaspen feminista horietatik eraikitzen ari gara burujabetza. Estatuetatik harago edo, hobeki esan, Estatuetatik honago abian jarri behar den burujabetza bat eraikitzen ari gara. Izan ere, Greziak irakatsi digun bezala, burujabetza ez da gobernuen edo mugen bidez lortzen. Burujabetza ez da bulegoetan adosten, eta ez da goitik behera eraikitzen. Greziak irakatsi digun bezala, kapitala ez dago inoiz kanpoan. Burujabetza ez da aldarrikatzen, bizitzatik bertatik borrokatu eta eraikitzen da. Eta beraz egunerokotasuneko gauza arruntenetan gauzatu behar da burujabetza: gure gorputzaz erabakitzeko eskubidean, denboraren banaketan, elkarbizitza eruedetan, aniztasunaren aitortzan, lanen antolakuntzan, eta baita ere komunaren defentsa, eredu publikoan edo finantziario bideetan. Ziurgabetasun erradikaleko garai honetan, gure bizitzaren jabe izatea ahalbidetuko digun burujabetza bat eraiki behar dugu. Horixe da Burujabetza Feminista.

Burujabetza Feminista ez da lurraldetik eraikitzen, baina lurraldean sustraitzen da. Guretzat, burujabetza prozesu indibidual eta kolektibo bat da. Gorputzetik pasatzen den burujabetza bat da, gure buruaren eta bizibideen jabe izateaz ari garelako. Hala ere, bizitza ez dugu guk bakarrik aurrera ateratzen, bizitzak ezinbestekoak ditu harremanak. Beraz eraiki nahi dugun burujabetza hori burujabetza kolektiboa ere izan behar da, erreproduktio soziala ahalbidetu behar baitu. Eta, kolektiboa denez, anitza izan behar da derrigorrez. Gure ikuspegitik, burujabetza lurraldean sustraitzen den prozesu bat da, lurraldea baita bizitzaren eta gure harremanen ingurunerik hurbilena, baina baita gure memoria kolektiboarena eta gure historiarena ere. Burujabetzarako prozesu indibidualek kolektiboki burujabe izatera iristeko balio behar digute.

Proiektu eraldatzaile orok gure buruaren jabe izatea ahalbidetu beharko liguke. Horretarako guztiz premiazkoa zaigu bizitzaren erreproduktio bideak berreskuratzea. Izan ere, kapitalarekiko harreman esplotatzaileak ez dira sortzen pertsonak ekoizpen bideen jabe ez garelako. Kapitalarekiko harreman esplotatzaileak sortzen dira gure bizibideek ez dutelako bizitza erreproduzitu ahal izateko aukera ematen. Horregatik, kapitalaren ekoizpen bideak bizitza kolektiboa erreproduzitzeko bide bihur daitezten lortu behar dugu. Ekonomiaren helburua gizarte osoaren beharrak asetzea izan behar da, eta ez kapitala metatzea. Gaur burujabeak izateko, bizi nahi ditugun bizitzak eraikitzea ahalbidetuko diguten gaitasunak, baliabideak (materialak, afektiboak eta erlazionalak) eta instituzio sozialak eduki behar ditugu.

Hala ere, kapitalari hegemonia ebastetik oso urruti gaude oraindik. Botere korporatiboaren zerbitzura dagoen Estatu baten aurrean, premiazkoa da bizitzaz erabakitze ahalmena eskuratzea. Zentzu horretan, Burujabetza Feministak lotura zuzena du Euskal Herriaren autodeterminazio prozesuarekin. Izan ere, gaur burujabeak izateko, bizitzaren erreproduktiorako ezinbestekoak diren baliabideak edo elementuak mobilizatzeko eta haien erabileraz erabakitze ahalmena izan behar dugu. Nola kudeatu nahi dugu ur hornidura, energia edo mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako laguntza? Zer egingo dugu jabetzarekin? Nola bermatuko dugu duintasunez hiltzeko eskubidea? Bizitza on bat eraiki ahal izateko, jendarteak burujabetza mota guztiez erabakitze ahalmena izan behar du. Eta horretarako, lehenengo eta behin, gure bizitzak antolatzeko erabiltzen ditugun kategoriak birpentsatu eta deseraiki behar ditugu. Hori egindakoan, behar ditugun instituzio sozialak berrasmatu eta zehaztu behar ditugu, familiaratik

hasi eta Estaturaino¹³. Bide batez esanda, instituzio horiek isildu, ezkutu eta normalizatu egiten dute kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka, sexuaren arabera banatzen baitute lana. Burujabetza Feministak ongizate kolektiboaren zerbitzura jarri nahi ditu instituzio horiek, haien logika irauliz. Horretarako, batetik, zalantzan jarri behar dugu instituzio horiek ematen dituzten eskubide sozialen jabe izateko oinarria (adibidez, gure eskubideak merkatuari egiten diogun ekarpenaren arabekoak izatea nahi ote dugun). Bestetik, zalantzan jarri behar dugu zein den eskubide horien subjektu titularra, historikoki familia nuklearra izan baita eskubide horien onuradun. Gure apustua hau da: *elkarren arteko harremanak dituzten pertsonak* eskubideen subjektu bihurtzea. Pertsonak interdependentek garelara eta elkarren beharra dugula onartu behar dugu. Adiskidetasunaren aitoren instituzionala proposamen zehatz bat izan liteke norabide horretan¹⁴. Pertsonok ezartzen ditugun eta familia nuklearretik harago hedatzen diren babes, elkarrekikotasun eta elkarlaguntza harremanak eskubideen subjektu gisa onartu behar dira.

Baina ez gaitezen nahastu. Burujabetza Feminista ez da instituzioetan botere kuota xume bat edukitzea. Bizitza antolatzekeo prozesu eratzaile bat abiatu nahi dugu. Zentzu horretan, Burujabetza Feminista demokratizazio politikorako prozesu erradikala ere bada. Guztia aldatzeko eskuratu nahi dugu boterea. Horretarako beharrezkoak diren tresna guztiak erabili behar ditugu: desobediencia zibileko ekintzak egitea politika patriarkalak erais-teko; mugimendu sozialarekin aliantzak ehuntzea, *komuna dena* eraikitze-ko; instituzio politikoetan dauden feministen lana uztartzea eta balioestea; eta, batez ere, feminismoarentzat boterea zer den definitzea eta nola erabili nahi dugun zehaztea.

Ildo horretan, boterea feminismotik pentsatzeak esan nahi du subjektu subalternook subjektu politiko eta gure bizitzaren protagonistak bilakatu behar garelara. Eta hori autoantolakuntza feministaren bidez lortzen da. Eta horretan ari gara Euskal Herriko bazter guztietan. Kapitalis-

¹³ Estatuak arreata analitiko eta politiko handia jaso du feminismoen aldetik. Eztabaida nagusietako bat hemen ikus daiteke: Amaia Perez Orozco (2014) *Subversión feminista de la economía*. Traficantes de sueños. Madril. 125-137 or.

¹⁴ Proposamen hori Mari Luz Estebani entzun nion lehenbiziko aldiz, 2016ko martxoaren 19an, emakumeen ahalduntzerako Etxelila etxean (Ondarru) egin zen “Adiskidetasuna eta elkarlaguntza” tailerrean.

moak antsietatea eta estresa eskaintzen digun bitartean, feministok bizitza on bat eraikitzeko baldintzak sortzen gabiltza han eta hemen. Horregatik ari gara lanean emakumeak ahalduntzeko, boterearen erabilera, funtsean, autoestimua, kontzientziazioa eta beldurrak barnebiltzen dituen prozesu bat delako. Baina, gainera, boterea feminismotik pentsatzeak esan nahi du instituzioek, alderdiek, sindikatuek nahiz gizarte mugimenduek mintzaki-de politiko gisa aitortu behar dutela mugimendu feminista. Horixe izan da hain zuzen mugimendu feministaren erronka nagusietako bat hasiera-hasieratik: feminismoa aitortua izatea emakumeok klase gisa ditugun interesak defendatzen dituen eragile nagusi gisa.

Labur esanda, Burujabetza Feminista ez da burujabetza konkretu bat, ezta gainerako burujabetzak barnebiltzen dituen aterki bat ere. Baina, aldi berean, burujabetza zehatzak abian jartzetik dator Burujabetza Feminista. Nagusiki, Burujabetza Feminista harreman sozial kapitalisten eraldaketa prozesu sakona da, jakinda harreman horiek heteropatriarkalak direla berez. Ekonomiaren beste antolaketa bateranzko aldaketa artikulatu behar duen subertsio marko komuna da, ongizate kolektiboa bermatzera bideratutako ekonomia eredu bat sustatu behar duen marko kolektiboa¹⁵.

TRANTSIZIO FEMINISTA

Burujabetza Feministaranzko bideak askotarikoak dira. Esan gabe doa, gure helburu nagusia ez dela eredu alternatibo bat sortzea, baizik eta, dagoeneko gauzatzen ari diren esperientzietan sakontzea, haien artikulazioak proiektu hegemoniko kapitalista ezegonkortu ahal duelakoan. Gaurdanik Burujabetza Feminista hori eraikitzen ari diren praktika eta erresistentzia batzuen bilduma aurkituko duzu atal honetan, gu jadanik ibiltzen hasi garen hiru bide zehatzetan sailkatuak.

15 Burujabetza Feministak zerikusia du Seminari Taifak eta Espai Fàbricak proposatzen duten Burujabetza Erreproduktiboarekin. Hala ere, gure ustez, Burujabetza Feministaren potentzialtasuna honako hau da nagusiki: ekonomia feministaren funtsezko eztabaidak jasotzea eta sistema kapitalista heteropatriakalari aurre egiteko gai izango den burujabetza bat eskaintzea. Burujabetza Erreproduktiboaren proposamena hemen kontsultatu ahal da: Autoría Colectiva (2017) *Soberanies, Una proposta contra el capitalismo*. Espai Fàbrica. Sant Andreu de la Barca.

1) Lehen bidea emakumeon autoantolaketa ehuntzea da. Emakumeon bizitza konkretuetatik abiatuta, kolektiboki zehazten hasi gara Euskal Herriko testuinguruan bizitza ona zer den eta nola antolatu behar garen ondo bizitzeko. Bilgune Feministak deituta, 2017ko martxoaren 25ean 200 emakume inguru bildu ginen Ekonomia Feministaren Foroan, Azpeitian. Mugatua eta bukatugabea izan bazen ere, ariketa hori baliagarria izan zen gure eguneroko prekarietateak ikustarazteko eta gure bizimoduak nola sostengatzen diren aztertzeke. Elkarri entzuteak agerian jarri zituen gure arteko ezberdintasunak. Urgentziak ere erakutsi zizkigun, hala nola feministok konpromiso indibidual eta kolektiboan sakondu behar dugula etxeko lan-egileen esklabotasun erregimenarekin bukatzeko¹⁶.

Emakumeon autoantolaketa horri esker beste bizimodu batzuk sortzeari ekin dioten emakumeen proiektuak ezagutzen eta saretzen ere bagabiltza. Haietako batzuk aspalditik datoz, hala nola emakumeon erresistentzia historikoa izan den elikadura burujabetza, edota lurraldearen suntsipenaren kontrako erresistentzian buru-belarri ari diren feministak. Beste kide batzuk, berriz, autogestioaren bitartez, pertsonen beharrak betetzeko erabiltzen diren baliabideak merkatutik ateratzen eta kolektibizatzen ari dira, zentro sozialak, ondasunen okupazioak, doako dendak edota hazkuntza taldeak sortuz bestea beste. Gure bizitzen jabe izateko ahalegin horretan, feminista askok familia eredu heteropatriarkalak zartatzen hasi dira, gurasotasuna afera politiko bihurtuz edo libreki hautatutako elkarbizitza sareak sortuz. Denborari eta haren balorizazioari buruzko proposamen feministak ere badaude: bestelako denbora politikak planteatzen dituzte edo sexuaren arabera banatutako lanaren kontrako eguneroko errebeldiak bultzatzen dituzte. Emakumeen autofinantziazio sareak ere sortzen ari dira, bankuen irabazi asmoei bizkarra emanaz eta birbanatze nahiz sororitate irizpide propioen arabera funtzionatuz. Burujabetza Feminista gure herri eta hirien diseinuari buruzko proposamen feministen bidez ere eraikitzen da. Proposamen horien helburua da gure herriak eta hiriak bizitzaren sostengarritasunerako espazioak izatea, eta ez elementu produktibo eta ordainduak lehenesten dituzten espazioak.

16 Malen Etxea elkarteko Silvia Carrizok foroan salatu zuen bezala, euskal gizartean ontzat ematen da pertsona batzuk esklabu izan behar direla gure nahiak eta bizimodua mantentzeko, eta pertsona horiek emakume migratuak izan ohi dira.

2) Bigarren bidea, sistema kapitalistaren dimentsio patriarkala agerian uztea eta, mugimendu sozialekin eta sindikatuekin batera, ekonomiaren adiera zabalago batean oinarritutako proiektu politiko partekatu bat eraikitzea da. Nork bere eremutik, komuna edo guztiona eraiki dezakegu. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta adibide ona da horri dagokionez.

Ekonomiaren adiera zabalago hori eraikitzeak orain arte ikusezinak ziren beste borroka subjektu batzuk argitara ateratzea dakar. Horri dagokionez, sakontzen jarraitu behar dugun esperientzia interesgarri bat nabarmendu nahi dugu: etxeko langileen kooperatibak, sexu langileen elkarteak eta sindikatuak mahai baten inguruan elkartzea prekarietatearen aurrean zer-nolako aliantzak egin daitezkeen aztertzeko.

Azkenik, ikaskuntza feministatik edan duten ekonomia sozial eta eraldatzailearen arloko esperientziak aipatu behar dira, gure bizitzak sostengatuko dituen etorkizuneko ekonomia horretarantz aurrera egiteko gakoetako bat baitira. Horrelako kooperatibek erabakiak pertsona gehiagoren artean hartzea ahalbidetzen dute, beste era batera antolatzen dute lana, esanahi zabalagoa ematen diote balio kontzeptuari, lurraldean sustraitzen dira eta euren lana batez ere bizigarria izatea dute helburu.

3) Hirugarrenik, bide globala daukagu, kapitalismoaren aurrean eman beharreko erantzunak haren ofentsibaren neurrikoak izan behar baitira. Bide horretan, Emakumeen Mundu Martxako elkartasun sarea gure pribilegioak aitortzeko eta kapitalismoaren euskarri diren harreman kolonial eta arrazistak iraultzeko erabiltzen dugun tresna da. Nabarmendu beharreko mundu mailako esperientzia bat Emakumeen Nazioarteko Grebak dira, orain arte sekula erabili ez den borroka moldea baita. Emakumeen esperientzia ekonomikoan oinarrituta, greba horiek beste era batera ulertzen dituzte ekonomia eta jendarte kapitalisten funtzionamendua. Baina, batez ere, greba horiek ulertzen dute produkzioaren eta erreproduzioaren arloko desberdineriak ezin direla bereizirik konpondu.

Azkenik, begirada zabal horrek ahalbidetu egiten digu ulertzea kapitalismoak askotariko tresnak erabiltzen dituela gure bizitzak menderatzeko: feminizidioak, lurren pribatizazioak, zaintza kate globalak, ondasun komunaren suntsipena eta beste asko. Mundu mailako begirada horri esker ulertzen dugu kapitalak nola zatitzen gaituen azal, jatorri edo sexu desberdintasunak esanguratsu bihurtuz, baina, horrekin batera, lurraldeen arteko beste lotura ekonomiko batzuk sortu ahal direla erakusten digu, herrietatik planteatuta eta ez merkatuetatik.

ONDORIO GISA

Aukeratu ditugun esperientzia horiek azterturik, trantsizio feminista abian dela esan dezakegu. Orain, kontraboteretik boterera pasatzeko garaia dugu. Horretarako, Euskal Herriko hainbat arlotako feministen artean sare iraunkor bat sortzea proposatu dugu, lehentasunak finkatzeko, urgentziei ekiteko eta Burujabetza Feminista sendotzeko estrategiak eraikitzen joateko. Ez da adituen espazio bat, baizik eta, batez ere, eraginkorra izan nahi duen espazio ireki eta plural bat. Arlo instituzionala, akademikoa, profesionala eta militantea harremanetan jartzeko saiakera bat. Heterogeneotasuna onartuz eta epe motzeko nahiz epe laburreko helburuak finkatuz ofentsiba kapitalistari erantzuteko proiektu feminista bat bultzatu behar duen espazio bat. Azken batean, gure bizitzen jabe izatea ahalbidetuko digun proiektu bat.

Berez, egin duguna jauzi bat izan da: feminismoa ideologia edo borroka molde gisa ulertzetik eta erabiltzetik, bizitza alternatiba errealak eraikitze eta planteatzeko proiektu politiko gisa ezaugarritzera pasatu gara. Eragin politiko eta ekonomikoa duen feminismo bat egin nahi dugu, jendartea eraldatzeko gai dena, gatazkan sartzen dena. Labur esanda, kapitalaren harreman sozialak irauliko dituen feminismoa egitera gatoz.

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Espai en Blanc (2006) Vida y Política. Materiales para la subversión de la vida. Bellaterra. 1-2 zk.

Narotzky, Susana (2004) Antropología Económica nuevas tendencias. Melusina. Bartzelona.

Perez Orozco, Amaia (2014) Subversión feminista de la economía. Traficantes de sueños. Madril.

Seminari Taifa (2017) Soberanies, Una proposta contra el capitalisme. Espai Fàbrica. Sant Andreu de la Barca.





IDEIAK ZABALDUZ

S A I L A

“Zer da, ordea, gaur egun burujabetza? Horixe da argitzen saiatuko garena. Bizitzaren jabekuntzaz arituko gara, botereaz, hizki larriz idatzita. Erabakitzeke ahalmenez, askatasunaz, baldintza materialetaz... Finean, hauxe baita burujabetzaren oinarritzko esanahia.

Burujabetza gorpuzteko, hau da, komunitate batek, hartzen dituen erabaki politikoen arabera bere burua gobernatzeko, zer behar du? Batetik, gaitasun politikoa, hau da, burujabetza materiala; bestetik, erabakimen gune bat eta bere eskumen zalantzaezinak, burujabetza formala. Euskal Herriko demosak, ongi izate sozial eta politikoa lortzeko, aipaturiko bi burujabetza formak behar ditu.

Jabekuntza prozesu honek dakarren konplexutasunaz jakitun, sakondu beharko dugu ahalduntze indibidual eta kolektiboan, interseksionalitatea eta transbertsalitatea gure begiradan txertatuz, feminismoen teoriak eskaini dizkigun hainbat kontzeptu eta lanabesak erabiliz”.

Lege Gordailua: SS-313-2018